



GOIERRITARRA

**Misioa,
behartsuei laguntzea**



Arg.: R. M. Zubizarain

Antzizar kiroldegia



BEASAINGO UDALA

KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
Instituto municipal del deporte



ALTZIBAR

LORATEGIA

☎ 943 88 26 80
GABIRIA

Bizitegiak

Haziak

Lore eta landare naturalak

Lorazaintzarako lurra

Produktu Fitosanitarioak

Jardineritza lanak

Ontziak, jardinerak...



Polígono 201 - Tfnoak: (943) 88 09 79 - 88 80 89 - Fax: (943) 88 80 89 - OLABERRIA (Gipuzkoa)

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:
 Goierritarrak Kultur Elkarte

Dorre-etxea, 1
 (Postetxe gainean)
 124 posta-kutxa
 20240 Ordizia
 Tfnoa: 88 96 12
 Faxe: 88 27 19

Zuzendaria:
 Loinaz Agirre
Maketazioa:
 Mikel Albisu
Publizitatea:
 Argider Mujika

Erredakzio Batzordea:
 Mikel Albisu, Joseba Telleria,
 Ane Martin, Loinaz Agirre eta
 Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista eta
 kolaboratzaileak:**

Joseba Telleria, Aitor Calvillo,
 Xabier Urteaga, Urko Irastorza,
 Aitor Arrue, Josune Aldabe, Ga-
 bino Murua, Juan Karlos Ioldi,
 Jose Ramon Pato eta Maddalen
 Hernandez.

Fotokonposizio eta maketazioa:
GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Ona grafikak
 (Artika - Nafarroa)


Tirada: 7.000 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

**GOIERRITARRAK ez du bere
 gain hartzen derrigorrez, aldiz-
 karian adierazitako esanen eta
 iritzien erantzukizunik.**

HAMABOSTALDIAN NABARMEN


Pelikula bat errodatzeko gaztelua eraikitzen hasi dira Aralarren, Igaratza inguruetan



Aralarren, Igaratza ingu-
 ruan, 'El halcon blanco' pe-
 likula errodatzekoa da Mate
 Production produktora. Eu-
 ropako herrialde askotan
 ibili omen dira kokapen
 egokia aurkitu nahian, eta
 azkenean Euskal Herrira
 etorri dira. Lehenengo Ur-
 basan saiatu ziren, baina
 artzainak aurka azaldu zi-
 ren. Ondoren, Aralar aldera
 etorri dira produktorakoak.

Gaztelua eta gotorlekua

eraikitzen hasi dira dagoe-
 neko. Argazkiko maketa
 eraikiko dute. Abuztuan ha-
 siko omen dira grabaketa la-
 netan. Ertaroan girotutakoa
 izango da pelikula.

Ekainaren 3an, prentsau-
 rrea eman zuten Aralarko
 artzainek eta EHNE sindi-
 katuko ordezkariak, proiektu
 honen aurka azalduz. Hu-
 rrengo alean izango duzue
 informazio gehiago eta ze-
 hatzagoa.

BOTA BERTSOA


Jon Lasa

Misiolari Rwandan

Misiolari baten kontuak
 goaz orain azaltzera
 aspaldi hontan Afrikan dabil
 aurrera eta atzera
 egun hauetan Euskal Herrira
 hurbildu zaigu gainera
 kanpon gehiago egonagatik
 lazkaotarra da bera
 Merezimenduz ongi etorri
 Herrikideon artera

Rwanda daibil lanean gogor
 Leonardo Esnaola
 behartsuekin lan egitea
 bate etzaio ajola
 denok dakigu inguru hartan
 gerra gogor bat dagola
 tutsi eta hutu etnia artean
 borroka ezin kontrola
 ondo ikasi dute lehenengo
 munduak duen eskola.

Zer pentsamendu daukate haiek
 Ifarraldera begira?
 nolakoa da haien begitan
 irrifarraren dizdira?
 munduan dagon hipokresiaz
 konturatutzen al dira?
 eta zu hara joan zinan ba
 etxetikan urrutira
 elkartasuna erakutsiaz
 inork nahi etzun tokira.

GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

**Eusko Jaularitza-
 ko Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



ZATOZ GUREKIN!



HITZARO

EGIN ZAITEZ BAZKIDE

Adin, lanbide, pentsakera eta aukera politiko guztietako euskaldunak osatzen dugu HITZARO.

Euskararen normalizazioa eta euskal kultura bultzatzea dira gure helburuak.

Euskara bultzatu eta zabaltu nahi dugu, era horretara Ordizia euskaldunago bat lortu asmoz. Helburu horrek elkartzen gaitu gaur egun HITZAROkoko bazkide garen 171 lagunak.

Zuk ere zer eskeinia baduzula iruditzen zaigu. Horregatik, Ordiziak eta euskarak merezi dutelako, zera esan nahi dizugu:

ZATOZ GUREKIN

EGIN ZAITEZ BAZKIDE



TXARTELA BETE,
SOBRE BATEAN SARTU
ETA BIDALI
HITZARO

Zumalakarregi Etorbidea, 1
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)



EDO 943 16 23 66 TLF.ra DEITU

NOLA LAGUN GAITZAKEZUN

- ☐ Elkarteko lantaldeetako partaide
- ☐ Ekintza jakinetarako laguntzaile
- ☐ Bazkide soil

KUOTA

- ☐ Lanean ari direnek: 4.000 pta. urtean
- ☐ Langabetuak: 1.000 pta. urtean



DATU PERTSONALAK

Izen Deiturak _____

Helbidea _____

Herria _____

Telefona _____

Bankua / Kutxa _____

Bulegoa _____

Kontu-Zbkia _____

TXANDAKA

Euskara ala...

Ez gara ezer izango euskararik gabe, edo "ez al dakizu euskara dela euskaldun egiten gaituena?"

Euskarak, pertsonen antzera, ibiltzeko bi hanka behar dituen tramankulu bat da. Hanka bat herritarrek osatua eta bestea bere arauak (izaera aberatsa mantentzeko hizkuntza onak dituen). Bi hauek martxan jartzean soilik ibiltzen da, herrenka pixka batean ibiliko da baina kili-kolo eta agudoago ez bada beranduago erori egingo da.

Herritarrok erabili behar dugu noski, eta ez haurrekin hitz egiteko soilik, zehaztasunez zerbait esan nahi dugun-ean ere euskaraz! Geureari eutsi nahi izatekotan, euskaraz idatzi, pentsatu, amestu, bizi eta hitz egin! Bestetik arauen hanka euskarri tinkoa dugu. Hauek (arauak) errespetatu eta gaurkotuak badauzkagunez kontuan hartu beharrekoak dira.

Ez da aski erabiltzearekin. Kalitatezko mintzaira behar dugu. Euskarak bizirik jarraitzea nahi badugu erabilera zuzeneko hizkuntzan oinarritua izan behar du, berezkoa duen egiturei kasu eginaz. Denborarekin aldatuaz doa euskara eta alor askotan txarrera; berarekin gaztelania ere bizi baita eta bata bestearen goitik jarri nahi izatean nahasketa kaltetsuak gerta daitezke. Ez dugu besteen hizkuntza zapaldu behar geurea zaindu baino.

Ahoa irekitzean zure soinuaren dizdira nagusitzen da, "zeta", "erre" eta "ese"z josia zaudena. Komunikazio edo inkomunikazio bidea ireki edo ixten duzu, baina berezia zu. Belaunaldiz belaunaldiko mintzaira iraunkorra ta segi aurrera... Herriko paraje ederretan jite zein. Jantzera doto-rekoa, hizlariari so. Laboaren abestian herriaren bihotza... Berba, hitz egin, egin, mintzatu gaitezen euskaraz!

Maddalen Hernandez Irastorza



Gurasoak eramango al zenituzke Zaharren Etxera?



Iraida Martin
23 urte, kazetaria
lazkaotarra

Ez. Gaur arte beraiek ni zaindu nauten, beraiek arduratu dira nitaz. Orduan ez dauzkat zertan bakarrik utzi. Egoera tristean biziko lirateke Zaharren Etxean.

Belen Parra
26 urte, kazetaria
olaberriarra

Ez. Beraiek beti gugatik arduratu dira eta ezin ditugu bakarrik utzi.



Kontxi Agirrebengoa
30 urte, langilea
zegamarra

Nire aldetik ez, baina zerikusia izango luke nire bizimoduarekin. Ezingo banitu zaindu, nahiago izango nuke etxean bertan laguntzeko pertsona bat jartzea.



K. Nagusia, 36
943 16 15 46 - 47
BEASAIN

Preziorik hoberenak UROLA BIDAIAK-en

- Galizia20.900etik.
- Tenerife39.900etik.
- Costa del Sol (hegazkinez)33.250etik.
- Benidorm (hegazkinez)45.900etik.
- Cancun98.500etik.
- Kuba85.000etik.
- Salou (H***) mantenu osoan3.200etik.
- EXPO'98 Lisboan asteburuak15.900etik.

Aukera gehiagoz agentzian informatu zaitez!

ZINEA

ORDIZIA:

'Legitima defensa'.
Ostirala 5: 22:15; igandea
7: 19:30 - 22:15; astelehe-
na 8: 19:30.

**'Un ratoncito duro de
roer'.** larunbata 6: 19:30 -
22:15; igandea 7: 16:45.

MUSIKA

ATAUN:

Ekainak 6, Esteban
Elizondoren organo kon-
zertua, San Martingo eli-
zan, 20:00etan.

BEASAIN:

Ekainak 11, Musika
Eskolako ikasle helduen
eskutik lehendabiziko
kontzertua, Udaletxeko
Batzar Aretoa, 19:30ean.

IDIAZABAL:

Ekainak 13, 'Oskorri,
25 kantu, urte', Igarondo
pilotalekuan 22:00etan.

ORDIZIA:

Ekainak 10, 'Oskorri
& The Pub Ibiltaria', He-
rri Antzokian, 19:30ean.

ANTZERKIA

ORDIZIA:

Ekainak 6, Pimpinellas
taldearen 'Una clase con
Abili', Barrena Kultur
Etxean, 22:30ean.

Ekainak 13, Xebe Diez
eta Pilar Guerraren 'Seta'
antzezlan, Barrena Kul-
tur Etxean, 22:30ean.
(Euskaraz).

IKUSENTZUNEZKOA

ATAUN:

Ekainak 11, Joxe Ra-
mon Agirre 'Marron'en
'K2-Baltistan' ikusentzu-
nezkoa, Oargi troskaetan,
20:00etan.

BEASAIN:

Ekainak 5, Migel Mari
Elosegik 'Transpirenaika
oinez' ikusentzunezkoa
aurkeztuko du Aizkorri
Mendizale Elkarte, 20:00etan.

Ekainak 17, Felipe
Uriarteren eskutik 'Ale-
giazko herrialde bat' dia-
positiba emanaldia, Uda-
letxeko Batzar Aretoa,
10:00etan, Euskaltegiak
eta Kutxa Fundazioak an-
tolaturik.

IDIAZABAL:

Ekainak 17, Koke La-
saren 'Manaslu: Izpiritua-
ren Bizilekua' ikusentzu-
nezkoa, 19:30ean, Kultur
etxean.

Ekainak 18, 'Ma-
rron'en 'K2-Baltistan'
ikusentzunezkoa,
19:30ean, Kultur etxean.

LAZKAO:

Ekainak 10, Migel Ma-
ri Elosegiren eskutik,
'Transpirenaika Oinez'
ikusentzunezkoa,
21:00etan Maizpiden.

ERAKUSKETAK

BEASAIN:

Ekainaren 12ra arte,
Jose Manuel Mongeren
pintura erakusketa, Aterpe
tabernan.

**Ekainaren 6tik 14ra
bitartean,** Pintura tailer-
reko ikasturte bukaerako
erakusketa, Usurbe An-
tzokian.

**Ekainaren 13tik uztai-
laren 3ra arte,** Patricia Pi-
ñeioren pintura erakuske-
ta, Aterpe tabernan.

**Ekainaren 12tik 18ra
arte,** Argazki tailerrean
egindako lanen erakusketa
Zinema tabernan.

ITSASONDO:

Ekainaren 7ra arte,
Txikiaren omenaldiko era-
kusketa, udaletxean.

ORDIZIA:

Ekainaren 5etik 26ra,
Michéle Neurriseren pin-
tura erakusketa, Barrenan.

**MONDRAGON
UNIBERTSITATEA**

ARGIBIDEAK

Eskoriatzako Humanitate eta
Hezkuntza Zientzien Fakultatea

Tel.: 943 - 71 41 57
Faxa: 943 - 71 40 32
e-mail: sarrera@huhezi.edu

Fakultate honek jakinarazten du
ekainaren 16ra arte zabalik dagoela
aurre-inskripzioa egiteko epea, ondorengo karreretan

- Humanitateak-Enpresako Lizentziatua
- Egokitze kurtsoa (Humanitateak-Enpresa Li-
zentziaturarako)
- Irakaslea-Hezkuntza Berezia berezitasuna
- Irakaslea-Haur Hezkuntza berezitasuna
- Irakaslea-Atzerriko Hizkuntza berezitasuna

IZENA EMATEKO EPEA

98-04-20tik 98-06-16ra
Ordutegia: 08:30-12:30 eta 14:30-17:30 (Ostiral arratsaldean izan ezik)

HITZALDIAK

ZALDIBIA:

Ekainak 11, 'Euskara eguneroko bizitzan'. Solaskideak: Iñaki Arregi, Urko Aiertza, Nekane San Miguel eta Itziar Nogeras. Moderatzailea: Arantzazu Loidi. Kultur etxean, 20:00etan.

Ekainak 18, 'Euskaren historia beltza' Joan Mari Torrealdai idazlearen eskutik, Kultur etxean, 20:00etan.

MENDI-IRTEERAK

Beasaingo mendizaleak:

Ekainak 7: Kanpaldia.

Ekainak 14: Dulantz-Urbasa (1.239 m.).

Ordiziako mendizaleak:

Ekainak 6: Anie.

Ekainak 14: Urkiola-Anboto - Santa Ageda.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Etxebizitzak:

☐ Bi neska behar dira etxea osatzeko Leioako Unibertsitatetik oso gertu. Oinez 15 minutu. Leku lasaia. 943-88 81 45. Leire.

☐ Goierrin pisu bat hartu nahi dugu lehenbailehen alokairuan. 919-47 53 74.

☐ Bi katu siames oparitzen dira, urtebetekoak, arra eta emea. 943-672613.

☐ 486 ordenagailua salgai, 16 Mb-eko memoria, 850 Mb-eko disko gogorra eta 8Xko Cd-Rom unitate batekin. 943- 65 29 95.

Lana:

☐ Neska bat behar da etxeko lanak egin eta 2 haur zaintzeko. 943 - 639192.

☐ Tabernarako neska bat behar da. Datu guztiak bidali Beasaingo 144. postakutxara.

☐ Zuen elizkizunak (ezkontza, zilarrezko eztei, bataio...) apain ateratzea nahi duzuela? Lau neskez osaturiko talde bat gaituzu, eta gure ahots, kantu eta instrumentuez dotoretuko dugu zuen zita. 943 - 88 27 38 / 943 - 88 75 05.

Bestelakoak:

☐ Udako mekanografia ikastaro intentsiboak Beasainen eta Idiazabalen. 943-889993 / 943-187188.

MAIATZAN SALDUENAK

LIBURUAK:

- 1- Bizkarrean tatuariako mapak
Harkaitz Cano (Elkarlanean)
- 2- Patagonia express
Luis Sepulveda (Txalaparta)
- 3- Leviatana
Edorta Matauko (Susa)
- 4- Plastikozko loreak erregearentzat
Xabier Montoia (Susa)
- 5- Argizarien egunak
Anjel Lertxundi (Alberdania)

DISKOAK:

- 1- Gozategi
'Kalanbreak' (Elkar)
- 2- Etzakit
'Etzakit' (Elkar)
- 3- Latzen
'Ardi Larruz' (Oihuka)
- 4- Kepa Junkera
'Bilbao 00:00 h' (Resistencia)
- 5- Lorelei
'Bada hiri gorri bat (Gaztelupeko hotsak)

Baga-Biga Kulturgaiak emandako zerrenda

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Cuesta (Nafarroa Etorb. 39-Beasain). 943-88 05 87.

Ekainak 6-7: Urbizu (Kale Nagusia, 8 - Beasain). 943-88 02 32.

Ekainak 13-14: Lournaga (Kale Nagusia, 4 - Ordizia). 943- 88 18 28.



GESTORIA Biok

(BANDRES)
ASEGUROAK

Errenta aitorpenak egiten dira

Goierrri, 12 behea

ORDIZIA

☎ 943 88 44 00

☎ 943 88 12 58

IKASTEK AKADEMIA

Kalitatea eta profesionaltasuna

- ✓ Eskola laguntza
- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Unibertsitate-maila
- ✓ Banakako laguntza
- ✓ Talde txikiak

Informazioa: ☎ 943 16 01 20
Joan Iturralde, 5 BEASAIN

Idazki honen izenburua daraman egitasmoa, Ataunen ezezik, natura-ekin zerikusia daukaten elkarte askoren baitan, erantzun zabala eta kritikoa jaso du. Hala ere, udaletxeko arduraduna, sortutako erantzun zabalarantz eginez (oraingoz bederen), egitasmoarekin aurrera jotzeko asmoetan mantentzen da, honetarako ezin besteko babes legala eskatuz.

Proiektua aurrera eramateko babes legal hauen artean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazal eta Ingurugiroko departamentuko baimena behar da. Izan ere, ezin dezakegu ahaztu egitasmoaren kokapena nahiz eta Ataungo herri lurren barnean egon, Aralar parke naturalaren barruan dagoela eta ondorioz, beronen araupean. Guzti honegatik, aipatutako txostenaren edukia egitasmoaren nondik norakoentzat eta zentzu administratiboan garrantzi handikoa denez, eta jada txostenaren berri dugunez, jarraian bere pasarte nagusiak aipatuko ditugu, honela, iritzi publikoa jabetu dadin Aralar parke naturala arautzen duen arautegiak ere, nekez onartu dezakela egitasmo hori.

Txostena atalka dago, eta hona ba beronen zati interesgarrienak. “*Lur Araudi eta Hiri Antolamenduari buruzko legea: debekatu egiten da lur eremu hiritarrezin gisa kalifikatutako lurrak ondorengo helburuak ez bezelako beste edozein helburuetarako erabiltzea; nekazaritza, basogintza, abeltzantza, ehiza eta oro har baliabide naturalen zentzuko erabilerarekin lotuta daudenak. Debekatuta daude ere ondorengo erabilera hauek: aldearen helburua edo izaera aldarazten dutenak, babestu nahi den balio bereziarentzat kaltegarriak direnak; eta berak ezarritako araudi murritzaille propioa hausten dutenak*”.

Jarraian parke naturalari buruzko araudien zati garrantzitsuenak bilduko ditugu: “*Ez du inolaz ere baimenik ematen, lehen sektoreari lotuta ez baldin badago, etxegune erabilera izango duen eraikuntza berririk egiteko ‘Hiri-*

Ataungo ostatu gunearen aurreproiektua

lur eta Azpiegitura’ bezala definituriko barrutik kanpo eta Hiri antolamenduko arauetan definituriko landa guneetatik kanpo. Mendien beheko aldeetara eraman behar dira lurraldearen erabilera intentsiboa dakarten edo ekipamendu garrantzitsua ezartzea eskatzen duen jarduera proposamen guztiak. “Parke araudiari dagokionez, ostatu gunearen proiektua baso alde bat du kokalekutzat, erabilera estentsibokoa, eta mendibidezetasuna ez, beste edozein jarduera galerazita daukana. Plan gidariko jarraibideen arabera, halako ezaugarrietako ostatu gune bat parkearen ertzetan kokatu beharko litzateke, parkea inguratzen duten errepidetik hurbil, bide berririk egin behar izateko, ostatu jardueraren ondorioz halakoak egin beharko bailirateke ibilgailuaren trafikorako, eta horren inguruneari kalte egingo bailioke”.

“inondik inora baztertzen dugula turismo alorra potentziatuko lukeen hainbat egitasmo bultzatzea, baina egitasmo horiek herriko babes zabalarekin eta ez “gehiengo politikoarekin” bultzatu behar dira... eta beti ere egitasmo horiek modu armoniko eta integral batean planteatu beharko lirateke, alegia, inguruko landa turismoko baserriak kontutan hartuta, bertako ostalaritza, herriko izakera eta ohiturak aintzakotzat hartuta. Artzai eta abeltzainen bizimodua errespetatuz eta azkenik, ingurugiroa errespetatuz”

Ataunen eta inguruan dauden agroturismoko bederatzi baserriek, ondorengo irakur dezatela: “*Inguruan landa turismoko bederatzi baserri daude gaur egun, guztira 78 lagunentzako tokiarekin. Landa turismoko etxe horien jabeek, guztira, 100 milioi pezeta inguruko inbertsioa egin dute beren baserriak jarduera horretarako egokitzeke. Baserri horiek ez dute okupazio ona*

izan azken urteotan, bezeroak erakartzeko gaur dituzten zaltasunei jarduera berriarekin sortuko litzatekeen lehia-kortasuna gehitu beharko litzateke, nahiz eta aurreztutako proiektuaren ostatu modua landa turismokoa ez bezalakoa izan. Horrek finantza arazo larriak sor litzake landa turismoko ostatu jabeek egindako inbertsioak amortizatzeari dagokionez, eta arriskugarria izan liteke haien nekazaritza ustiapen bideragarritasunari buruz”.

Ondorioz eta proiektua gauzatuko balitz, landa turismoko baserritik bizi diren bederatzi famili hauen etorkizuna, kinka larrian geratuko litzateke. Argi eduki dezatela egitasmoa begi onez ikusten duten horiek, hauek ere lanpostuak direla; ahaztu gabe ere, Maomendiko larreetatik bizi diren artzai, zein abeltzainen egoera. Argi da proiektu honek, edozein modutara begiratuta ere, ez duela inongo zentzurik. Gurean bezelako herri txiki batean batabatean 40 eraikin, jatetxe-taberna, bi pilotaleku, igerilekua... 256 pertsona kabituko liratekeen egitasmo batekin topo egitea... gure eguneroko bizitzan sekulako desoreka sortuko litzateke.

Amaitzeko esan dezagun ere, inondik inora baztertzen dugula turismo alorra potentziatuko lukeen hainbat egitasmo bultzatzea, baina egitasmo horiek herriko babes zabalarekin eta ez “gehiengo politikoarekin” bultzatu behar dira... eta beti ere egitasmo horiek modu armoniko eta integral batean planteatu beharko lirateke, alegia, inguruko landa turismoko baserriak kontutan hartuta, bertako ostalaritza, herriko izakera eta ohiturak aintzakotzat hartuta. Artzai eta abeltzainen bizimodua errespetatuz eta azkenik, ingurugiroa errespetatuz. Maomendiko gune turistikoa gauzatuko balitz, gaizki ulertutako progresoaren baitan desagertuko litzateke gure nortasuna. Prest al gaude, izan ginena eta garena galtzeko?...

Juan Karlos Ioldi Mujika
Ataungo presoa Murtzian

ERREZETA



Aritza Uriarte
Amebi sagardotegia
Lazkao

ETXEKO NATILAK

Osagaiak: litro bat esne, 12 arrautz gorringo eta 180-200 gramo azukre.

Lehenengo kazuelan esnea egosi. Beste ontzi batean 12 arrautzen gorringoak eta 180-200 gramo azukre nahastu. Eta ondoren, aurrez egosi dugun esnea gaineratu.

Maria bainuan jarri eta nahastu loditu arte.

Zerbitzatu behar dugun ontzietan jarri natila, eta gainean gaileta bat jarri.

On egin!



Jose Ramon Pato

Argi psikologia klinikoa

Gizakia berez soziablea da, beraz, komunikazioaren beharra dauka, bere giza harremanak garatzeko. Hain garrantzitsua den aurpegi hau ez bada betetzen, arazoak sor daitzke.

Komunikatzeko beharra, azalenerako mailetatik barne-barnekoetarainokoa da. Bikotearen harremanean ahalegintzen gara ahalik eta komunikazio barnekoena edo intimoen lortzen.

Horregatik jartzen dugu hainbesteko ilusioa bikote harremanean eta gure nahiak bete ez direla ikusten dugunean, frustrazioak eta gatazkak sortzen dira.

Hori dela eta, oso garrantzitsua da bikotean komunikazio ona izatea, maila guztietan. Honek ez du esan nahi, bikotearekin beti eta gauza guztietan ados egon behar denik, baizik eta akordiotara iristen eta hitz eginez arazoak konpontzen ikasi behar da.

AHOLKUA

Komunikazioa bikotean

Artikulu honen helburua, komunikazio hau hobetzen laguntzeko hainbat klabe ematea da.

Lehenengo, oso garrantzitsua da entzuten jakitea. Bestea ulertzen saiatzen ahalegina egin. Besteak esan nahi duguna ondo ulertu dugula ziurtatu. Esaten dugutena guretzat garrantzitsua dela erakutsi. Interpretazioak eta zentzu bikoitzak baztertu.

Esaten duguna ere garrantzitsua da. Nahiak, gustuak, sentimentuak, gure eskubideak eta noraino iritsi nahi dugun adierazterakoan zehatzak izan behar dugu. Bestearen deskalkifikatzeak ebittatu egin behar dira eta besteengandik gustatzen edo gustatzen ez zaizkigun jokaera zehatzak azaldu. Beti eduki behar da kontuan guztiok daukagula gure sekretuak edo iritzirik barnerakoenak gure bikoteari esan edo gordetzeko eskubidea.

Desadostasunak sortzen diren kasuetan, lehenengo gogo-aldatea lasaitu behar da eta gero bata eta bestearen benetako beharrak, jokaerak, desioak, iritzia, sentimentuak, e.a. zeintzuk diren aurkitzen saiatu. Oso garran-

tzitsua da ados gauden gauzetan edo bata bestea-rengandik egiteko prest gauden gauzetan murgiltzea.

Beti saiatu behar da bikoteko bi kideek beti zerbait irabaziko duen akordiora iristen. Batzuetan sormenezko irtenbideetara iritsi behar da, biak asebetetzeko.

Oso garrantzitsua da bikotearen komunikazioan ez huts egitea, harreman guztian eragiten baitu, afektiboan, sexualean, elkarbizitzan, seme-alaben zainketan, e.a.

Bikotearen komunikazioa hondatzen ari dela sentitzen dugunean, berriz ekiten eta berbideratzen saiatu behar da. Bikotea bere harremana berreskuratzeko gai ez bada, garrantzitsua da bitartekari profesional batengana joatea, harremana mantentzeko eta hobetzeko klabeak aurkitzen saiatuko baita.

Intimitate maila altua lortzeko, asko zaindu behar da bikotearen arteko komunikazioa. Izan ere, bera hondatzearekin, gure aspirazioen zati oso garrantzitsu bat galduko baitugu eta hain garrantzitsua den galera batek, beti suposatzen baitu txokea gure gogo-aldatean.

BEASAINGO

UDAL

EUSKALTEGIA

San Martin Pl, Kultur Etxea
943 80 52 54 BEASAIN

1998ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE, ALFABETATZE eta EGA. Azken hau uztailan eta irailean.

Erritmoak

Uztailan, egunean 3 ordu, goizez (09:00-12:00)
Irailean, egunean 4 ordu eta erdi (08:30-13:00)

Bekak eta diru laguntzak ditugu.

Informazio gehiago nahi izanez gero, galdetu euskaltegian!

16 urtetik gorakoentzat.

Bulego ordutegia

Goizez: 09:00-13:00
Arratsalde: 15:00-19:00

Matrikula epea

Ekainaren 10etik 23ra

Barnetegia

Uztailaren 1etik 15era
ZERAINEN

UDAN ERE

-EGA titulua eskuratu nahian bazabiltza hurbil zaitez Udal Euskaltegira.

-1998-1999 ikasturtean euskara ikasi edota hobetu nahian bazabiltza egin ezazu aurre-matrikula Udal Euskaltegian.

GOIERRITARRA berandu

Maiatzaren 21, 22 eta 25ean Correoseko langileek egindako greba zela eta, maiatzaren 22ko data zuen GOIERRITARRA aldizkaria ohi baino beranduago banatu zuten. Barkatu atzerapena.

Haritz Zeberio

Maiatzaren 27an libre gelditu zen Haritz Zeberio preso beasaindarra. Otsailaren 6tik Alcalako kartzelan izan da. Poliziak kale istiluekin zerikusia izatea leporatzen dio. Maiatzaren 30an, Beasaingo jaietan, txosnetan, ongi-etorria egin zitzaion Haritzi.

Arantxa Karrera

Amezketarra jaiotzez baina ordiziarra bizitzez den Arantxa Karrera preso libre gelditu da, 16 urte kartzela ezberdinetan egon ondoren. Maiatzaren 31n ongi-etorria egin zitzaion Ordizian.

Segurako bariantearen aurka

Segurako Herri Batasunak azken orduan bidali zigun oharren arabera, Eusko Gobernuak eta Gipuzkoako Diputazioak prestatutako PTPeant (Lurraldearen antolaketa partziala), Segurako bariantearen aurkako jarraera azaltzen da. Era honetan, HBren ustez, "benetan penagarria EA eta PNVren



Sasieta sariak

Sasieta Mankomunitateak antolatutako eskolarteko kartel eta jostailu lehiaketetako sari-banaketa egin zen maiatzaren 22an, Beasaingo Udaletxeko Batzar Aretoan.

IV. Kartel lehiaketa Beasaingo Ikastolako DBHko 1. mailako Ekaitz Hernandez, Koldo Agirre eta Aritz Corsittok irabazi dute. Jostailu lehiaketa, berriz, Urretxu-Zumarraga ikastolako DBHko 2. mailakoek.

Plaka jasotzearekin batera, maiatzaren 29an, Bidarraira rafting egitera joan ziren bi ikasgelak elkarrekin. Argazkian, Urretxu-Zumarragako eta Beasaingo ikastoletako talde irabazleak dituzue, Sasietako eta Beasaingo udaleko ordezkariekin batera.



Nazioarteko Museo eguna

Maiatzaren 21ean Nazioarteko Museo eguna ospatu zuen Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak. Karlistak eta liberalak aurrez aurre izan ziren, altxorra nork aurkituko. Aurten 1864ko trenzubia izan zen jokoaren ardatza, partaide eta ikusleak monumentuaren garrantzi historikoaz jabe zitezen.

jarrera. Orain arte ez dute, ez arrazoi ekonomikorik, ez demografikorik, ez tenikorik, ez sozialik azaldu, Bariantearen alde egoteko. Arrazoi bakarra, 'horretarako dirua eman digute'. 400dik gora herritarrek herri kontsulta egiteko eskakizunari uko egin zion Udalak eta "orain Diputazio eta Eusko Gobernuaren txoste-na ere, aurka daukazu".

Beasainen eduki- nontzi berriak

Ordizian eta Olaberrian jarri ondoren, ekainaren lehenengo egun hauetan Beasainen jarriko dituzte ontzien bilketarako eduki-nontzi edo kontenedore berriak. Lehengoz gain, 35 berri jarriko dira eta Sasieta Mankomunitatekoek adierazi digutenez, orain arte baino sarriago hustuko dira, zerbitzu hobea eskainiz.

Uztailerako Lazkaon eta Goierriin edukinontzi berriak jartzea espero da.

Zumalakarregi museoaren beka

Zumalakarregi museoak ikerketa historikoa sustatzeko ateratzen duen 250.000 pezetako beka, Gorka Urtaran eta Maider Gorostiaga ikerlarientzat izango da. 'Frantses okupazioa Gasteizko hirian Independentzia gudan (1808-1814)' gaia aztertuko dute ikerlariek.

LOINATZ

Taberna
Jatetxea
Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN




Zaldizurreta kalea

☎ 943 88 45 06

BEASAIN

IBAI-ONDO



ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Antzizar Auzoa, z/g

☎ 943 880543 BEASAIN



Goierri txapelkun bertsoan

Maiatzaren 29an Orion jokatu zen XVIII. Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari txapelketan Goierriko taldea txapelketa izan zen, txikien atalean. Iban Urdangarin, Hartz Aierbe, Oier Zurutuza eta Aitzol Munduate ataladarrek eta Irati Goikoetxea beasaindarrek osatu zuten taldea. Oiatzun, Zarautz eta Antiguoko taldeekin gogor lehiatu ziren. Epaimahaia Arantzazu Loidik, Imanol Lazkanok eta Arantxa Arrutik osatu zuten eta bertsoari onenaren saria Aitzol Munduatek jaso zuen.

14 eta 18 urte bitartekoan artean, ere beste bi goierritar izan ziren 9 finalisten artean: Ekaitz Goikoetxea eta Iñaki Apalategi beasaindarrek. Txapelketarako puntuagarriak ziren bost bertsoak kantatu ondoren, Ekaitz Goikoetxeak bigarren egin zuen, Nerea Elustondo legazpiararen atzetik. Munduate eta Goikoetxea Gipuzkoa ordezkatzuko dute ekainaren 30an Mungian jokatzeko den Euskal Herriko txapelketan.

Idatzizkoetan ere Goierriko harrobia nabarmendu zen. 3. eta 4. mailan, Ioritz Zurutuza ataladarrek, DBH 1. eta 2. mailan Haizea Arruti itsasondorrek eta hortik gorakoetan Ekaitz Goikoetxeak irabazi dituzte aipamen bereziak.

Goierriko bertsolari gazteek, Jexux Goikoetxea ataladarren nekerik gabeko ekimen prestua aipatu nahi izan dute.



Idea Berritzaileen II. sariketa

Goiekik II. Idea Berritzaileen sariketa antolatu du. Idea eta proiektu berritzaileak bultzatzeaz gain, sustatzaileen irudia babestea du helburu sariketa honek. Era horretan, enpresa egitasmo berrien garapena erraztuz eta lanpostu berriak sortuz.

Goierriko eskualdean enpresa berri bat antolatzeko asmoa duten pertsonen zuzendua dago sariketa. Bi sari izango dira: 1.000.000ekoa eta 200.000 pezetakoa. Idea hoberenentzako enpresaren kudeaketan, heziketan eta Goiekiko enpresen inkubategian ideia garatu ahal izateko laguntza izango da.

Proiektuak aurkezteko epea uztailaren 20an bukatuko da. Informazio gehiagorako telefonoa: 943- 16 18 31.

Sariketa honetako babesleak, jarraian dituzuen enpresak dira: Ampo, Aristrain, Bilore, Caf, Construcciones Sukia, Ederfil, Eredu, Eun, Estanda, Guerra, Hine, Landu, Imeguisa, Irizar, Izar, Jaso, Kendu, Pagosa eta Pingon.

Aitor Garmendia

Euskal Bizikletan bigarren egin zuen Aitor Garmendia txirrindulari itsasondorrak.

Intsausti Harria

Izeta III. harrijasotzaileak 60 jasoaldi eman zizkion Intsausti Harriari, maiatzaren 24an, Legorretan. Iaz baino jasoaldi gehiago eman zizkioten harriari, bai

Izetak eta bai iazko irabazleak, Telleria, berak.

Bittor Arroniz

Beasaindar korrikalariak irabazi zuen Euskaldunon Egunkariak antolatutako Gasteizko krosa. 10 kilometroko ibilbidea 35 minutu eta 58 segundutan bete zuen. Lasterketaren azkeneko 400 metroan egindako erasoak eman zion garaipena.

LEIAR
KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA:
Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24
BILTEGIA:
Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70
BEASAIN

**KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA**

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko tfnoak: 943 88 57 50 - 943 88 57 54
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN

AMEBI



Sagardotegia

Erretegi bezala egunero irekita eguerdi eta gauean, astelehen gauean ezik.

- ✕ Eguneroko menua
- ✕ Karta zerbitzua
- ✕ Plater konbinatuak
- ✕ Asteburuetan menu bereziak

Zubierreka, 9 ☎ 943 16 25 23 LAZKAO

TZENKI

AHOLKULARITZA
Hiribarren, 30
☎ 943 16 23 93
LAZKAO

- ♠ Aholkularitza juridikoa, fiskala, laborala, kontablea...
- ♠ Zure arazoentzat neurri-neurriko erantzunak ditugu!

LEONARDO ESNAOLA LAZKAOTARRA 36 URTE MISIOLARI RUANDAN:

"Hemengo zenbaitek daukaten aberastasuna ezin dute gozatu, horiek elkartasun gutxi dute bihotzean"

Angolan bi urte eta Ruandan 36 urte. 38 urte daramazki Leonardo Esnaola misiolari lazkaotarrak. 1990ean hasitako gerraren eta 1994ko genozidioaren ondorenak bizi dituzte Ruandan. Gihara eskualdeko Kigalin bizi da Leonardo. Egoera nolakoa den eta oro har misiolarien lana zein den azaldu digu.

Apaiztu eta lehenengo bi urteak Bergarako Angiozarraren egin zituen. Handik Afrikako Angola herrialdera joan zen misiolari. Portugalen kolonia zen Angola artean. Bi urte egin zituen. "Portugalداررrek ez ninduten utzi han egoten. Ordungo giroa txarra zen eta hango egoerari buruz idatzituen hemengo aldirikari batean eta hilabetera atera beharra nuela esan zidaten. Kolonia aldetik nahiko larri zebiltzan. Portugalداررrek astakeria asko egiten zituzten; gauza onak ere bai: herriak bildu, eraiki, errepideak egin... Baina hartuemanetan ez zuten lan askorik egin. Pentsatzen zuten betirako izango zirela hango nagusi". Angola oso herrialde aberatsa omen da, "denetarik du, diamanteak, petroleoa..." eta lurraldez oso zabala.

Hilabete pare bat Euskal Herrian pasatu ondoren eta Patxi Garmendia donostiarra lagun zuela, Ruandara joan zen. Ruanda herri txi-



Leonardo Esnaola:
"Agintaritzak ez du errekonziliazio biderik nahi, mendekua eta errepresalia baizik".

kia, biztanle asko dituen, aberastasunik gabea eta nekazaritzatik bizi dena da, nahiz eta lursail txikiak eduki.

Pobreei lagundu

Orain 50 urte hasi zituen misioak Eliz Barrutiak. Kristau ez diren herrialdeetan egiten den ebanjelio-aldarrikapena egitearekin batera, behartsuei laguntzen die misiolariak. Leonardok adierazi digunez, Ruandan, eskolak eta etxeak eraiki dituzte; nekazaritza arloan erakutsi eta elkarrekin sortu dituzte; gaztediarekin lan asko egin dute, langabezia handia baita; alfabetatzen ere bai, doktrina erakustearekin batera; errepideak eta siloak eraiki dituzte... Leonardok horrela laburtu digu misiolariaren lana: "beraiekin egon, beraien arazoak ikasi, ahal denean lagundu, arriskueta egon, pozetan ere bai...".

Egoera zaila

Egoera zaila utzi du Leonardok Ruandan. 1990ean hasitako gerrak eta 1994ko genozidioak ondorio gogorrak utzi ditu bertan. Gerra garaian han egon zen Leonardo, baina genozidioa hasi zenean bertatik atera beharrean aurkitu ziren. Biztanleriaren % 85 hutu etnia-koak dira eta gainerakoak tutsiak. Gerra irabazi ondoren, tutsiak daude orain agintean. Hutuak denbora luzean egon dira boterean. "Tutsiek ez dute nahi hutuekin lan egin. Azkeneko denboran oso eraso gogorrek egiten ari dira hutuak, gehiengoak ez baitauka tokirik. Militarrek dauden lekuak erasotzen dituzte hutuek eta tutsiek errepresalia bezala, edonor hiltzen dute. Guk ezagutu izan dugu tutsiek asko sufrizten hutuen aldetik. Uste genuen tutsiek boterea hartuta hobeto

egingo zutela, baina ez dute horrela egin. Agintaritzak ez du errekonziliazio biderik nahi, mendekua eta errepresalia baizik".

Lazkaotarrak kontatu digunez ihesi joandako errefuxiatuak itzultzen ari dira. Baina herritar hutu asko kartzelan sartu dituzte, genozidio garaian zerbait egin zutelakoan. Kartzeletako egoera oso larria omen da. "Ruanda guztian 130.000 preso egongo direla esaten da. Ezer egin gabeko asko daude. Guztien epaiketak egiteko 300 bat urte behar-ko direla esaten da. Bitartean oso gaizki daude, oso baldintza txarretan. Askotan esertzeko lekurik ez daukate eta egun guztian zutik egon beharra daukate. Kanpora ateratzen ez die uzten. Euria, hotza, beroa dela, beti leku berean egoten dira pilatuta". Kartzeletan laguntzen saiatzen omen da Eliza, baina ez da erraza, agintariak kontra baitaizkate.

Jaiotza asko

Ruandak duen beste arazotariko bat jaiotze tasa handiarena da. Gerra bukatu ondoren gainera, jendearen erreakzioa haur gehiago edukitzearena izan da. "Gerran eta genozidioan jende asko hil zela eta erreakzio bezala, berriro egin behar dela esaten dute. Ugaritasun handia dago eta aurre- rapena frenatu egiten du.

Haur asko familiarik gabe gelditu dira gerra ondoren. "Askotan ama ezagutzen dute baina aita ez. Parrokia guztietan elikadura

zentruak daude. Umeak amarekin etortzen dira. Pisatu, behar badu jaten eman... asko dira gaizki jandakoak eta indar gutxi-koak. Askotan ume bati bu- larra kentzerako berriz ere haurdun egoten da ama. Familia erregulazioa behar da. Eboluzionatuenak dau- denek preserbagailuak eta erabiliko dituzte, baina he- rrietako jendeak, ez du onartzen. Baina gero ez di- ra konturatzen horren on- dorioak izugarritzkoak dire- la. Hortan lan asko dago. Elikadura zentruetan gura- soei formazioa eman behar zaie”.

Hiesarekin gainera arazo handia dago. Uganda izan- go da arazo handiena duen herrietako bat eta gero Ruanda. “Batez ere hiri in- gurutuan dago arazoa. La- gundu egin behar zaie, ebo- luzionatu eta hortik etorriko dira ondorioak. Kanpainak egiten dituzte. Eliza aldetik ez dago askatasun handie- girik. Baina nik uste Elizak gurasoen erresponzabilita- tea eskatzen duela. Guraso- ak arduratsuak baldin badi- ra badaukate baimena zen- bat seme-alaba izan eraba- kitzeko”, dio Leonardok.

Eliza, gaizki

Ruandan, % 70 bat inguru kristau dira izenez, “batai- latuta daude. Ez katolikoak bakarrik, protestanteak ere bai. Beste asko anemistak dira. Oraindik ere batailatu gabeak. Elizak eta erlijio kristauak erreztasuna eduki dugu, jendea elkartu eta erakusteko. Lan asko egin da eta jende gehienak kris- tautasunaren berri dauka”.

Agintaritzak dena den ez du begi onez ikusten Eliza Katolikoa. “Genozidio ga-



“Lazkaotar ruandesa”

Horixe erantzun digu Leonardo Esnaolak nongoa den galdetu diogunean. 65 urte ditu. Jesukristok hots egin ziolako joan zen misioetara. Dena den, argi dauka mi- siolari Eliz Barruti osoak izan behar duela. “Kristauak izatez besteenganako ardura izan behar du; ahal izanez gero, besteei lagundu eta beste herri batzuetara joan”.

Lazkaotarren laguntza

Duela bi urte Lazkaotik 220.000 pezeta eraman zituzten Ruandara. Diru hura zertan erabili zuten esan nahi izan di- gu Leonardok: beste leku batzuetatik iritsitako diruarekin, eskola bat eraiki zuten.

Diruaz gain, bi urtetan, Miren Ormazabal eta Txomin Barandiaran lazkaotarrak eta Jokin Izagirre segurarrak ere eraman izan dute giza laguntza, hainbat lan egiteko. Rosa Mari Zubiarraín, berriz, erizain lanetan jardun izan da urte askotan, nahiz eta momentuz, etxean egon.

raian kritika asko egin zi- tzaizkion Elizari. Gobernua Elizaren aurka dago garbi- garbi, batez ere Eliza Kato- likoaren aurka. Nik uste Elizak errua izan duela, baina Eliza gizonez osatua dago eta ezin zaio erru guz- tia bota. Elizak lan asko egin zuen jendea salbatze- ko. Gutxiegi salbatu geni- tuela leporatzen digute. Batzuek errudun dira, du- darik gabe, baina oraingo Gobernuak gehiegi aterat- zen du publikora Elizaren kontra joateko”. Lehenago- ko hutuen Gobernua eta Eli- za, ordea, gehiegi elkartuta omen zeuden. “Hori gaizki dago. Guk ere askotan kriti- katu dugu hori. Baina gu beti kanpokoak ginen. Oraingo Gobernua ixildu

ere egin gabe dago Elizaren kontra”.

Agintean daudenek ez dute nahi “gu hango arazo- etan sartzea, laguntza ema- tea onartzen dute”.

Beldurra, askotan

Askotan sentitu izan du bel- durra Leonardok, eta baita bere burua arriskuan ikusi ere. “Azkena orain bi hila- bete. Pistolarekin apuntatu ninduten baina pistolak ez zuen tiro egin nahi izan. He- rriotzaren eskudroiak dela- koak daude eta oso erraz egin dute beraien lana”.

Argi dauka dena den Le- onardok, itzuli egingo dela berriz ere Ruandara. “Hasi- tako hartueman, lagun- tza... ematen jarraitu beha-

rra daukat, zain daude haiek. Ezin ditut hala utzi eta indarra edukiz gero, itzuli beharrean nago Ruan- dara”.

Elkartasuna

Euskal Herri- tik laguntza as- ko iristen da Ruandara Leo- nardok aitortu digunez. Mi- sioetarako urtero egiten dira diru-bilketak. Dena den, inoiz ez da nahikoa izaten. Batez ere ikusita, inguru hauetan sortzen ari den abe- rastasuna. “Estibalizen izan nintzen lehengo batean, eli- za berria egin dute eta ingu- ruan izugarritzko etxeak egin dituzte. Hor daukaten aberastasuna gozatzerik ez daukatela uste dut. Elkarta- sun gutxi dauka jende hor- rrek bihotzean. Nola azaldu jende horri beste herri bat- zuek badaudela pobrezia arazoa handia dutenak”. Eurengandik ikasi beharre- ko balore bat badagoela go- gorarazi digu Leonardok. “Haiek daukatena banatu egiten dute”.

Hala ere, beste herrialde- etatik iristen den laguntza- rekin batera, “bertakoek iristen zaïen laguntza hobe- to aprobetxatzeko gehiago egin beharko lukete. Ugari- tasunean behintzat ardura gehiago jarri beharko luke- te. Jende gutxiago izango litzateke eta aldi berean ho- beto formatuak. Guk la- guntza ematen dugunean ez dugu edozein modutara ematen, eurek ere eman be- har digute trukean. Euskal Herrian haur gutxiegi eta han gehiegi. Hemen ume- entzako gauza asko dago, baina umerik ez”, argitu du. Demokrazia bidetik joatea ere eskatzen dio Europar Batasunak Ruandari, ema- ten zaion laguntzaren truke.

Eustakio Mendizabal 'Txikia' gogoratuz

Apirilaren 19an 25 urte bete ziren Eustakio Mendizabal 'Txikia' itsasondoarra, ETako buruzagia, Poliziak Algortan hil zuela. Ondarroan omenaldia egin zitzaion apirilean, emaztea hangoa baitzuen. Orain, Itsasondon hartu dute txanda, eta bihar arte, ekainak 6, hainbat ekitaldi ari dira burutzen Txikiaren jaioterrian. Udalak antolatuta.

Apirilaren 12ko data duen 'Argia' astekariko erreportaiako datuetan oinarritu gara, batzuentzat mito, eta gazteagoentzat nahiko ezezaguna den pertsonaia historiko hau gogoratu eta ezagutzeko.

1944an urriaren 9an jaio zen Itsasondon Eustakio Mendizabal. Txikia, isila eta kirolzale amorratua omen zen. 1954an Lazkao-ko beneditarren komentuan sartu zen. 1967an atera zen bertatik. Komentuan piztu zitzaion euskararenganako zaletasuna eta bere eskuetara iristen ziren euskal liburu guztiak irakurtzen omen zituen. Dena den, fraile lagunek behin baino gehiagotan aitortu dutenez, sekula ere zen intelektual handia izan,



Mendizale amorratua, hantxe sentitzen omen zen gustura Eustaki Mendizabal 'Txikia'.

baratzan lan egitea nahiago omen zuen. Frailetza utzi eta Beasaingo tailer batean sartu zen lanean. Aldi berean Magisteritzako ikasketak hasi zituen.

Baina adiskide bat atxilotu zuten eta polizia Txikiaren etxean azaldu zen laster. 24 ordu eduki zituen poliziak zain etxean. Justu-justu alde egin omen zuen.

1968an Iparraldera ihes egin zuen. ETako antola-

mentu eta buruzagitzan garrantzi handiko kide bihurtu zen. Hegoaldean eta Iparraldean euskaldun jendea lanean jartzeko nortasun oso berezia omen zuen. Klandestinitatean 5 urte pasatu zituen, 1973ko apirilaren 19an, Ostiral Santu egunez, polizia espainiarrarekin Algortako kaleetan izandako tiroketan hil zuten arte. 29 urte zituen. Behil kontsul alemaniarraren eta Zabala

eta Felipe Huarte enpresariaren bahiketetan parte hartzea eta Soralezko Sindikatuen Ordezkaritzaren erakuntza suntsitzea leporatu zion poliziak.

Gertutik ezagutu zutenek diotenez, bi adarren inguruan zegoen Eustakio Mendizabalen bide politikoa: abertzale izateko euskara behar; eta nahiz eta abertzale izan eta euskaldun, horren alde borrokatu, borroka erreal bat. Berdin kritikatu-ko zituen espainolismo aldetik zihoazenak eta abertzale erradikal aitortu eta borroka dinamika batean sartzen ez zirenak. Guztia- ren oinarriaan, berriz, euskara zuen

Poeta

Jon Mikel Arano idazlearen eskutik Susa argitaletxeak 'Hitzen etena' liburua kale-ratu zuen 1992an. Eustakio Mendizabalen koadernoetan idatzitako poesiak biltzen zituen liburuak. Arano- k laburbildu zuenez, "literatur eskola zaharrarekin eten eta gerora poesia sozila eginez aurrelari bezala agertzen zaigu. Euskara-etena, ze nahiz eta lehena- goko euskararen idatzi ba- zuten ere bere produkzioaren muina eta gehiena, gerora euskara batua ezagun du- gun honetara hurbiltzen baitzaigu". Txikiaren oler- kietan aniztasuna zen nagusi: erlijioa, euskara, langile-

Itsasondoko omenaldia

Ekainaren 7ra bitartean, Eustakio Mendizabalen argazki, olerki... erakusketa izango da Udaletxean, iluntzeko 8eta- tik 9etara, eta larunbat eta igandean, baita eguerdian ere.

Bihar, ekainak 6, gaueko 10,30etan ekitaldi berezia izango da Goiko plazan: Txikiari buruzko diaporama, eta bere olerkietan oinarrituriko literatur irakurketa izango di- ra, musikaz lagundurik, Ondarroako Antzerki Kolektibo- arn eskutik.



943 88 55 00 ORDIZIA

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnok.: 943 88 02 43
943 88 01 33
BEASAIN



KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN

San Inazio, 5 943 88 35 81
BEASAIN

EGUZKITARAKO
Betaurrekoak
3.500
pta.tik aurrera




EGUZKITARAKO
Betaurreko graduatuak
8.500
pta.tik aurrera



Ray-Ban



REVO



PORSCHE DESIGN



MULTIOPTICAS



MOTO HONEN ZOZKETA
GURE BEZERO ARTEAN



Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari:

- MULTIOPTICASen kreditu-txartela.
- Diru barik erosetako modurik errazena.
- Ordaintzeta 30, 60 edo 90 egueretan atzeratzea modu zuzen baten bidez emaketa da.



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
TRAVEL CLUB
PROGRAMAKO PUNTUAK

ERAMAN
EZAZU
OPARI
EDER BAT



MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16
Tel. 943 76 15 75
20570 BERGARA

Juan Carlos Guerra, 1
Tel. 943 79 29 95
20500 ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 88
20240 ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2
Tel. 943 20 05 22
20600 EIBAR

MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmalteria, 7
Tel. 943 51 78 11
20100 ERRETERIA



orkli, s.coop.



Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08

GABIRIA

Nahikari Gabilondok irabazi zuen Osinalde bertso lehiaketa



Txapelketan parte hartu zuten sei bertsolariak eskubiko ertzean Amaia eta bere ondoan Nahikari.

Joan zen larunbatean zortzi jokatu zen Osinalde elkarte-
an Bertsolari Gazteentzako
XXVII. bertso lehiaketa.
Sei bertsolarik hartu zuten
parte eta Zarauzko Nahikari
Gabilondo izan zen irabaz-
le. Bigarren saria Amaia
Agirrek eskuratu zuen eta
bertsorik onenarena Gas-
teizko Oihane Perek.

Gora-behera handiko
bertso saioa izan zen, jende-
aren aldetik giro bikaina be-
netan eta bertsolariak ere
nahiko txukun hasi ziren eta
bertso ederrak entzuteko
aukera izan genuen kartzel-
lako bertsoetara heldu au-
rretik. Nahikari, Amaia eta
Alfonso nahiko egoki aritu
ziren banaka nahiz bikoteka
eta hauek hirurak izan ziren
onenak lehenengo saio ho-
rretan.

Ondoren kartzelako
gaien txanda heldu zen eta
ezin esan bertso on askorik
entzun ahal izan genuenik
eta horren errua ezin diegu
egotzi jarri zitzaizen gaiei,
gaiak egoki askoak izan
baitziren. Urduritasunagatik
edo, baina, bertsolariak
galdu xamar ibili ziren saio
honetan, gaiari heldu ezinik
eta askotan zentzu handirik
gabeko bertsoak osatuz;
Kartzelako saio honetan



Argazki lehiaketako irabazleak.

Oihane Perearen bertsoak
izan ziren nire ustez hobere-
nak, bera izan baitzen gaiari
ongien lotu zitzaiona.

Amelia Jauregiren argazkia irabazle

Iaz antolatu zen lehenengo
aldiz herritarrentzako ar-
gazki lehiaketa eta aurtengo-
goa, beraz, bigarren ekital-
dia izan dugu. Lehiaketa
honetan Baztarrikako Ame-
lia Jauregik irabazi du lehe-
nengo saria Ardantza alde-

tik Gabiriako herriari atera-
tako argazkiarekin. Biga-
rren saria, Iru-Bideko Pake
Galdosek eskuratu zuen; hi-
rugarrena Blanka Lopezek
eta laugarrena Eneritz Go-
rrotxategik.

Argazki hauek guztiak
eta saritu gabeko gaineran-
tzeakoak ikusgai egon dira
Kultur Asteak iraun duen
bitartean Kultur Etxean.

Gabino Murua

Doñanakoaren antzeko zerbait gerta daitekeelakoan herria komunikabideetan

Azken bi aste hauetan gure herriaren izena eta irudiak hainbat eta hainbat komunikabi-
detan azaldu dira orain itxirik dagoen meategiko urtegia dela eta. Hemen ere Doñana
inguruan gertatu den hondamendiaren antzeko zerbait gerta daitekeelakoan, zeresan eta
bilera dextente izan dira azken egunotan Jaurlaritzako, Diputazioko eta Udaleko ardura-
dunen artean.

Badirudi gauzak ondo eginda daudela hemengoan eta ez dugula horren kezkarik izan
behar. Dena den, gauzak aztertzea eta ezer gertatu aurretik neurriak hartzea beti da onu-
ragarri.

Ekogarbi
"Ekogarbi ilargia be-
zain garbi"

**Garbiketa eta
mantentze
zerbitzuak**
SERIOTASUNA,
KONFIDANTZA,
PROFESIONALITASUNA

943 16 02 23 - 970 95 00 88
Atxisain baserria IDIAZABAL

GERTU ABOKATUAK

✓ Aholkularitza
juridikoa
✓ Entrepresa
zerbitzuak
✓ Aseguruak

Tel./Faxa: 943 16 21 92
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

ARRIZAR BODEGOIA

Eguneroko menua 850 pezeta
astelehenetik ostiralera,
12:30 etatik 15:00 etara

Zaldizurreta, 7 943 88 98 44 BEASAIN

BEASAIN

Edadetuak zaintzeko egunezko zentrua sortzekotan da Udala

Gaur egun herrian ditugun etxez etxeko laguntza eta erresidentzi zerbitzuak osatzeko asmoz, zaharrenei zuzendutako errekurso sozial berri bat sortzekotan da Udaleko Gizarte eta Ongizate zerbitzua. Agureentzako egunezko zentru bat sortu nahi du Urbialde enparantzan. Udalak dagoeneko baieztatu du ekimen berri hau eta Foru Aldundiari aurkeztu zaio dirulaguntza eske. Baina horretaz gainera, Gizarte eta Ongizate zerbitzuak beasaindarron iritzia ezagutu nahi du lehenbailehen, erabiltzaile posibleen kopuru bat osatu nahi baita aurrera segitzea erabaki aurretik.

Zerbitzuaren funtzionamenduari dagokionean, agureak egunero 8 orduz egongo lirake zentroan. Goizeko 10ak aldera garraio egokitueta jasoko litzukete, eta zentroan lan terapiak, errehabilitazioa edota behar dituzten garbiketarako egingo litzazkieke. Bertan bazkaldu eta meriendatuko lukete, 18:00ak aldera etxera itzuliz. Beraz, egunean zehar ondo zainduta leudeke, eta lotarako etxean direnez familiarekiko kontaktua

ez da galduko.

Baldintzei dagokionean, 60 urtetik gora izan behar dira zerbitzu honetaz baliatzeko. Eta hura erabiltzaile motatan pentsatu da: bakarrik bizi eta eguneroko bizitza egiteko arazoak dituzten edadetuak, familiarekin bizi eta lan arazoak edo direla medio behar bezala zaindu ezin direnak, eta azkenik, zainketa beharra dutenak baina erresidentzian sartzea komenigarri ez duten kasuak.

Egunezko zentroa astelehenetik ostiralera izango da lanean, oporraldirik gabe urte osoan zehar. Eta kostua oraindik zehaztu gabe dagoen arren, hilabeteko 45-50.000 pezeta inguruan ibiliko omen da; dirulaguntzak izango dira errekurso falta kasuetarako.

Proiektua hor dago, beraz. Eta orain udaletik herri-tarron erantzuna eskatzen da. Honela, interesaturik zaudeteno edota informazio gehiago nahi duzutenok, erregutzen zaizue Udaleko Gizarte eta Ongizate zerbitzura jotzeko (943-805238).

Aitor Arrue

Udal tailerren erakusketa

Urbietako Arte Plastikoen Zentroak hainbat tailerren egoitza izan da urtean zehar. Eta orain, ikasturte amaiera dela eta, euren lanen erakusketa egiteko asmoa dute. Honela, ekainaren 5etik 14ra marrazki eta pintura lanak ikusgai izango dira Usurbe Antzokiko erakusketa gelan, arkatzez eginiko marrazkiak, pastelak eta olioeko lanak. Eszenatoki berean, 19tik 28ra bitartean, zeramika tailerrean egindako buztinezko lanak eta muralak izango dira.

Bestalde, hilaren 12tik 28ra arte, 'Argizpi Argazkizale Elkartearen' erakusketa izango da Zinema tabernan. Eta kasu honetan ere, udal tailerrean egindako zenbait lan egongo dira ikusgai.

Musika-eskolako kontzertuak

Ikasturte amaierarekin jarraituz, datozen egunetan ikasturte bukaerako kontzertu zikloa hasiko du Musika eskolak. Datorren ostegunean, hilak 11, 19:30etik aurrera ikasle helduen kontzertua izango da Udaleko Batzar Aretoan. Aipagarria da, jende aurrean emango duten lehen saioa izango dela beraientzat. Eta astebete geroago, ekainak 18, Usurbe Antzokian eta 19:30etik aurrera azken mailetako ikasleek beste kontzertu bat eskainiko dute.

Futbol-7

Iaz bezala Futbol-7 txapelketa jasoko du Loinatz futbol zelaia datorren ekainaren 13an. Goizeko 9,30etatik aurrera infantil mailako 16 talde izango dira lehian. Inguruko taldeez gainera, Errealak, Athletic, Alaves eta Osasuna dira parte-hartzaile adierazgarrienak.


Bestalde, bezperako beste ekitaldi bat prestatu dute antolatzaileek. Udaletxeko Batzar Aretoan 20:00etatik aurrera harrobiko futbolari buruzko hitzaldia izango da. Bertan, Salva Iriarte, Periko Alonso, Pako Aiestaran, Mikel Lasa eta Errealeko jokalariren bat bilduko dira.

Koadrilarteko txapelketa

Zumazuritze izan da aurtengo futbito txapelketako garailea. 5-4 irabazi zion Zurreki final bizi batetan, eta prorrogaren ondoren, 50 minutuak binako emaitzaz bukatu baitziren. Txapelketan hirugarrena Likabik izan da eta laugarren Auskalo. Finaleko jokalaririk onenaren saria Cesar Torresek (Zurrek) jaso zuen, txapelketako onena Roberto Turrientes bere taldekidea izan den bitartean. Bestalde, bai talde golegileena bai gutxien jaso dituenak, urte osoan maila handian arituen Zumazuritze izan da.

Bibliotekak

Kultur etxeko liburutegiak bere ordutegia zabaldu du azterketa garaia dela eta. Honela, goizetan 9etatik 1era eta arratsaldean 4etatik 8etara zabalik egongo da. Ezkiaga Auzo etxeak, berriz, ekainaren 13an oporrak hartuko ditu eta itxirik



4 kilo ziza

Beasainmendin aurkitu zituen Iñaki Mujikak 4 kilo ziza. Arrieta baserritik gora hain zuzen ere. Eskuetan duen zizak, kilo erdi inguru pisatzen omen zuen.

ZALDIBIA

‘Euskaraz mintzatuz, euskaraz irakurritz, euskaraz biziz, euskara indartu’ lema-pean udalak hainbat ekitaldi antolatu ditu ekainean zehar. Euskararen jabe izateak zer esan nahi duen hausnartzea nahi da. Euskal abizenak euskal grafiaz legalki jartzeko aukera eskaintzeaz gain, solasaldiak, bertso jaialdia, liburu aurkezpena eta musika jaialdia antolatu ditu.

Ekainaren 11n, 20:00etan, Kultur etxean, ‘Euskara eguneroko bizitzan’ gaiari buruzko solasaldia izango da, Arantzazu Loidi (euskara teknikaria) moderatzaile dela. Solaskideak, berriz, hauek izango dira: Iñaki Arregi (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen koordinatzailea); Urko Aiertza (Abokatu euskaldunen sindikatuko partaidea); Nekane San Miguel (Epailea) eta Itziar Nogeras (Elhuyarreko partaidea).

Ekainaren 18an, leku eta ordu berean, ‘Euskararen historia beltza’ gaia jorratu-ko du Joan Mari Torrealdai idazleak.

Euskara indartzeko jardunaldiak herrian

Hirugarren hitzaldia, ekainaren 25ean izango da, ‘Euskarak askatzen gaituelako, gu egiten gaituelako...’ izenburupean, Pilar-txo Etxeberria (EHUko irakaslea) eta Karmele Etxabe, Saroi Jauregi, Larraitx Gar-mendia eta Oskarbi Jauregi (Zaldibiako euskararen inguruan azterketa egiten ari diren Zaldibiako ikasleak) izango dira mintzagai, Kultur etxean, 20:00etan.

Ekainaren 19rako bertso-jaialdia antolatu da frontoian, 22:30ean. Sebastian Lizaso, Jesus Mari Irazu, Unai Iturriaga, Estitxu Arozena, Manolo Arozena eta

Jon Maia arituko dira Joxe-pa Madariaga gai-jartzailearen aginduetara.

Ekainaren 26an, Urtzi Urrutikoetxea idazleak ‘Borroka galduetatik gatoz’ bere liburuaren aurkezpena egingo du, poesia musikatu-z. Hau ere 20:00etan izan-go da, baina antzokian.

Eta azkenik, ekainaren 27an, gaueko 10,30etan, frontoian, Guk musika taldearen jaialdia izango da.

Euskal abizenak euskal grafiaz

Agiri guztietan euskal abizenak legalki euskal grafiaz idatzita agertzea nahi badu-

zu, Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren laguntzaz, aukera hori eman-go dizu uztailaren erdira arte. Kultur etxera Nortasun Agiriari fotokopiarekin joan eta bertan egingo dira behar diren tramite guztiak.

Patxi Erauskin herritar-rrak 1931ko abenduaren 27ko Argian argitaratu zituen bertsoek honela zioten: *“euskera nai degulako / biotzez maitatu / euskal izenak ere / ginduzen eskatu; (...) Euskeraz jarri izena / nai duten denari”*.

Umeen jarduetarako begiraleak

Uda-98 kanpaina dela eta, begiraleak behar dira, ekainaren 29tik uztailaren 23ra bitartean goizez jarduerak antolatuko baitira umeentzat, astelehenetik ostirale-ra, goizeko 10etatik ordu batera. Begiraletarako baldintzak hauek dira: Zaldibian erroldatua egotea, 18 urtetik gorakoa izatea eta euskara ondo menderatzea. Kultur etxean eman behar da izena.

Sexualitate tertulia

Damixelak emakume taldeak antolaturik, sexualitatea izan-go da mintzagai, bihar, ekainak 6, Zubi Buru elkarte-arratsaldeko 6ean. Zer ulertzen dugu sexualitateaz mintzatzean? Zer da zuretzat sexualitatearen esanahia? (Penetrazioa, laztantzea, lagunen artekoa...) Nahiko informazioa ote preserbagailuen inguruan? Galdera hauek eta beste hainbat gai jorratuko dituzte. Damixelakoek adierazi digutenez, sexualitatearen gaia oso zabala da eta abiapuntua ematea erabaki dute. *“Baina horretarako, herritarrek nola ulertzen dugun eta zer hutsune ikusten ditugun helarazteko aukera izango dugu tertulia honetan”*. 6etatik 8etara bitartean, haur txikientzat jolasak izango dira.

LEGORRETA

Asentzio jaiei errelebo hartuz dator Korpus eguna. Ekainaren 13an izango da. Egun horretarako udalak antolaturiko egitaraua hau-xe duzue.

10:00etan: Diana dultzainariekin.

11:30ean: Bilkoin K.K.E.k antolatutako herri krosa. Bi lasterketa izango dira: bata 11 urtera bitarte-ko partaideentzat eta bestea

12 urtetik gorako korrikalari-entzat.

13:30ean: Herri krosaren sari-banaketa.

18:00etan: IX. Ardo Dastatze txapelketa.

18:00etatik 19:30era: Kalejira Ordiziako Laguntasuna Errondailarekin.

18:30ean: Zahagi ardoa jarriko du udalak, herritar eta bisitari guztiek nahiko ardo edan dezaten.

19:30ean: Usariozko meriendak plazan.

20:30etik 22:00era: Ordiziako Laguntasuna Errondailaren emanaldia.

Ondoren: Kalejira eta dantza saioa ‘Nekaezinak’ txarangarekin.

Jubilatuak txapeldun Beasainen jokatu den Eskualdeko txapelketa irabazi du herriko Zaharren Egoitzak, hiru probatan. Tutean,

Demetrio Garmendiak eta Franzisko Goikoetxeak irabazi dute; seietan Milagros Izagirrek eta Filomena Amondarainek; eta botean Patxi Esnaolak.

Era berean, toka txapelketan, ormaiztegiarren atzetik, bigarren gelditu dira Jose Antonio Garmendiarekin.

Korpus eguna ekainaren 13an

LAZKAO
Nesken futbol taldea mailaz igo da


Garai honetan, taldekako txapelketa gehienak amaitzen direnean, talde hauetako batzuek bere lan onaren emaitzak jasotzen dituzte, hala nola, futbol-aretoko nesken taldeak bere emaitzei esker mailaz igozteko lortu du.

Lehenengo Gipuzkoako txapelketa jokatu zuten Lazkaoko neskek, emaitza oso onak lortuz gainera. Txapelketa honetan hiru partidurik bakarrik galdu ondoren lehenengo postuan amaitzea lortu zuten. Txapelketa honetako lehen biak eta goiko mailako azken laurak Federazio Txapelketa jokatu behar izan zuten. Liga honetan lehenengoan

bezain ondo ez ibili arren, hirugarren postuan hain zuzen, mailaz igozteko lortu dute, eta beraz, datorren urtean Gipuzkoako goreneko mailan jokatu dute.

Erakutsi duten maila onaren adierazgarri izan daiteke, Lazkaoko taldeko bi jokalarik Gipuzkoako selekzioan jokatu dutela urtean zehar. Bi jokalarik hauek, Amaia Sukia eta Amaia Arnaz dira.

Datorren urtean, gainera, selekzio honetako jokalariekin osatutako talde batek Espainiako Liga jokatu du, eta beste goierritar batzuren artean, talde horretan egongo da Amaia Sukia herriarra ere.

Aurten taldea osatu duten neskek honako hauek izan dira: Idoia Oria atezaina eta Amaia Arnaz, Amaia Sukia, Izaro Aldanondo, Eneritz Lazkano, Ainhoa Soraluze, Amaia Garmendia, Amaia Trigueros eta Nagore Santxo (nahiz eta urte osoan min hartuta egon). Entrenatzailea, berriz, Mikel Alonso 'Potto' izan dute.

Datorren urtean gauzak zailago izango dituzten arren, ziur gaude duten guztia emango dutela sailkapen on bat lortzeko. Guk, noski, gertutik jarraituko ditugu talde honen nondik norakoak.

'Azki'-ren bidaia

'Azki' emakumeen elkarteak bidaia bat antolatu du, 'kurtso amaierako' bidaia deitu dutena. Urtero antolatzen duten bidaia, aurten Gaztela aldera egingo dute, Segobiara hain zuzen. Leku eder honetan izango duten programa honako hau izango da. Lehenik, akueduktua, katedrala eta alkazarra bisitatuko dituzte goizez, gero, berriz, bertako mesoi

tipiko batera joango dira bazkaltzera, eta arratsaldean San Ildefonso gaztelua ikustera joango dira.

Bidaia, ekainaren 6an izango da eta joan nahi duenak 943 88 90 65 telefonora deitu beharko du izena emateko.

Udaltzain berria

Hemendik gutxira, Marcial Luis udaltzaina jubilatuko egingo da, eta berak betetzen zuen kabo postua hutsik gelditzen da beraz. Postu hau, orain dauden bi udaltzainetako batek beteiko du, aukeraketa barne prozesu baten bidez egingo delarik.

Udaltzain postu bat libre geldituko da honen ondorioz eta postu hau betetzeko ere aukeraketa prozesu bat aurrera eramango da laster. Postu hau betetzeko kondizio eta arauak Gipuzkoako Boletín Ofizialean argitaratuko dira aurki, eta guk horren berri zehatza eskeiniko dizuegu hurrengo aleren batean.

Urko Irastorza

ZUHAIZKI
S. A. L.
ZURGINDEGIA


× LEIHOAK, ATEAK eta abar

× ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

PSIKOLOGI KLINIKOA


Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua

Elkargokide zenbakia: E-2644

RPS: 420/95

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA

☎ 943 88 72 21

☎ 910 02 00 41

Oriamendi, 3 - 2. ezk.

BEASAIN

OSKARBI
OINETAKOAK


Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers


K. Nagusia, 25

☎ 88 19 44

ORDIZIA

IDIAZABAL

Eskolarteko mendi lehiaketaren finala



Ekainaren 14an, igandea, Eskolarteko XI. Mendi lehiaketari dagokion finalista eguna ospatuko da Idiazabalen. Gipuzkoa guztiko haur eta gaztetxoak etorriko dira egun horretan. Antolatzailerak aurreratu dutenez milatik gora lagun etortzea espero dute. Idiazabalgo Mendi elkarte ari da egun horretarako guztia antolatzen.

Mendi elkartekoek horrela laburtu dute egun horren helburua: "Gipuzkoako eskolek urtean zehar hainbat ibilaldi antolatzen dituzte, horiei bukaera emateko urtero festa bat egiten da. Jai horretan diplomak eta bestelako sariak banatzen zaizkie urtean zehar ibilaldietan parte hartu dutenak".

Goizeko 8,30etan hasiko dira ekitaldiak. Ordu horretan herri inguruan antolatutako mendi ibilaldia egiten hasiko dira partehartzaile-

ak. Ibilbidean zehar hiru gune berezi egongo dira prestatuta. Lehenengo gunea, nekazaritzari buruzkoa, Ojarbi inguruan egongo da jarrita; bigarrena Arantzazumendin egongo da eta bertan besteak bestea hamaiketako eginez trikitilarien eta bertsolarien saioak ikusteko modua izango da. Hirugarren gunea Oregi inguruan antolatuko dute, mendiko lanei eskainitakoak izango dira.

Herrian bertan ere hiru erakusketa gune izango dira, Kultur Etxean mendi kirolei eskainitako txokoa jarriko dute; arkupetan mendia zaindu beharra dagoela ohartaraziko duen gunea egongo da eta Txomenarenako parkean kanpotik datorren jendeak elkar ezagutzeko lekua antolatuko da.

Eguerdian, diploma eta sari banaketa izango dira. Ondoren, nahi duenak alde egiteko aukera izango du,

Kultur astea

Ekainak 14, igandea:

8:30ean. Gipuzkoako eskolarteko mendi ibilaldia- ren hasiera. 13:00etan: diploma eta sari banaketa.

Ekainak 15, astelehena:

19:30ean: Hitzaldia Kultur etxean. Anorexia eta bulimia. Hizlariak: Arantza Lorenzo eta Ane Miren Uranga dietistak.

Ekainak 16, asteartea:

19:30ean: Hitzaldia Kultur etxean. Gaia: Ingurugiro heziketa. Hizlaria: Gerarta Iñaki Arozena, pedagogian lizentziatua.

Ekainak 17, asteazkena:

19:30ean: Kultur etxean, Koke Lasaren 'Manaslu (8.163 m.): Izpirituen Bizilekua' ikusentzunezkoa.

Ekainak 18, osteguna:

19:30ean: Kultur etxean, Joxe Ramon Agirre 'Marron'en 'K2-Baltistan' ikusentzunezkoa.

Ekainak 19, ostirala:

17:00etan: Eskola-umeen merienda plazan. 18:00etan: Tutik ere Clowns pailazoak Igarondo pilotalekuan.

Ekainak 20, larunbata:

18:00etan: Kale-antzerkia Marco Caroli aktoreak 'Capoconico' lana eskainiko du plazan. 22:00etan: Os- korri taldeak '25 kantu, urte' kontzertua eskainiko du Igarondo pilotalekuan.

Ekainaren 15etik 19ra

'Naturaren Atalak' erakus- keta ikusteko aukera izango da Kultur etxean. Horretaz gain, Javier Fernandezek Islandian, Ekuadorren, Vene- zuelan, Argentinan eta Afrikan ateratako argaz- kiak ikusteko aukera izan- go da Kultur etxean, arrat- saldeko 6,30etatik 8,30eta- ra.

herrian geratzen direnentzat arratsalde pasatzeko hain- bat eskaintza egingo dira: igerilekura joatea, GoierOri ezagutzea edo elizako do- rrean prestatuko den gunean eskalatzea.

San Adrian

Igande honetan, ekainak 7, egingo da San Adriango erromeria. Goizeko 7etan abiatuko dira autobusak Mujika jatetxe paretik, eta

Otzaurretainoko bidea egin- go dute.

San Adriango erromeria dela eta, arratsaldean urtero bezala ardoa partituko dute plazan eta bertan afaldu nahi dutenentzako mahaiak jarriko dituzte. Beste urte batez, Idiazabalek partzone- rian duen partehartzeari eut- siko dio San Adriana joa- nez.

Xabier Urteaga

MEKANOGRAFIA


Beasainen eta Idiazabalen

UDAKO IKASTARO
INTENTSIBOAK

MC Akademia

Beasain: 943 88 99 93

Idiazabal: 943 18 71 88



XENKEGI
ETXE-AROKINTZA

Diseinuak neurritan

Larunbat arratsaldez irekita

Erakusketako ☎-faksa: 943 889113 - ☎ mugik.: 908 863591

Senpere Merkatalgunea, 38

BEASAIN

Sukaldeak
Ateak
Zoruak
Armairuak

ORDIZIA

XIX. Futbol txapelketa bigarren fasean

Otsailaz geroztik hor ibili dira 17 talde nor baino nor XIX. Lagunarteko Futbol Txapelketa zela eta. Antolatzaileek bi multzotan banatu zituzten taldeok eta aurreko asteburuan eman ziztaion amaiera lehen faseari. Multzo bakoitzeko lau talderik hoberenak pasa dira orain bigarren fasea jokatzerara. Esan inolako ezustetarik ez dela izan momentuz.

'A' multzoan, multzorik zailenean, iazko txapelidunak diren Tximista Sagar-dotegikoak izan dira lehendabizikoak, bigarren Badago izan da, hirugarrena Orlegi-Loretos eta laugarrena Morapios. 'B' multzoan, berriz, E.R.Matxain Ileapaindegia nagusi izan da norgehiagokarik galdu gabeko, bigarren Urbitarte Sagar-dotegia geratu da, hiru-

garren Wiskas eta laugarren Harriketarrak sailkatu dira. Azken hauek lehen aldiz lortu dute final laudenetarako txartel hau.

Antolatzaileek berriro ere bi multzotan banatu dituzte 8 taldeok eta finalerdietara multzo banako bi lehenak sailkatuko dira ligaxka moduan jokatu eta gero. Honela geratu dira multzoak: batetik Tximista, Badago, Wiskas eta Harriketarrak egongo dira eta bestetik Matxain, Urbitarte, Orlegi eta Morapios. Txapelketako goleatzailerik nagusia E.R.Matxain Ileapaindegiko Pedro Mari Goñi 'Bolas' izan da.

Preferentetik Errejonalera

Aurretik iragarrita zegoen bezala, Ordizia Futbol Tal-

deak ezin izan dio preferentet mailari eutsi. Javi Fernandez mutilek azken partiduan Oiartzun gaintetzea lortu bazuten ere, azken aurrenak izan dira eta datorren urtean Errejonaleko lehen mailan arituko dira. Hasiera batean lau baziren jeisten ziren taldeak, azkenean bi besterik ez dira izan, 3. mailako jaitsierak ere kontutan hartzen baitira. Baina alperrikakoak izan dira azken ahaleginak.

Gauzak positiboki begiraturaz gero, ordea, kontutan izan behar da azken urteetan, Ordiziak maila galdu duen bakoitzean, lehen urtean lortu duela berriro Preferente mailarako igoera. Gainera, azken partiduetan ikusi denez, jubenil ugari aritu dira eta maila ona erakutsi dute. Aipatu baita ere

Insaustik egindako denboraldi bikaina, 20 goletik gora lortu baititu.

Saskibaloia hastear

Datorren astelehenean hasiko da XVII. Kuadrilarteko Saskibaloia Txapelketa. Estali gabeko pilotalekuan jokatuko dira kuadrilen arteko neurketa hauek eta uztailaren 16an izango da finala.

Txirrindulariak bikain

Mikel Errazu, Iosu Elgarresta, Angel Vazquez, Arkaitz Martinez eta Kristian Sorreluz dira erlojuz kontrako taldekako Gipuzkoako txapeldun berriak. Ordizia altzariak Marotiak taldeak junior mailan lortu duen bosgarren garaipena da berrau, denak erreskadan gainera. Txapelketa Itsasondon jokatu zen.

Aitor Calvillo

JOSUNE & KLAUDE
ileapaindegia edergintza

*'Edergintza eta ileapaindegia
tratamendu guztiak*

Iturtxo, 5 ☎ 943 16 22 56 **ORDIZIA**

EROSKI
KAFETEGIA

gosari - merienda
eguneroko menua

☎ 943 88 27 93 **ORDIZIA**



Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI
INFRIMATEGIA

☎ 943 88 94 82

BEASAIN



MUJICA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

98ko UDA IKASTAROAK

GOIZTIRI



EUSKALTEGIA

MATRIKULA ZABALIK
EKAINAREN 25era ARTE

INFORMAZIOA

ORDIZIA: Santa Ana Ikastetxea ☎ 943 88 91 74

BEASAIN: Kale Nagusia, 5 - 3. ☎ 943 88 93 40

SEGURA

Futbolak jarraitu egingo du



Infantilek lortu dute denboraldiko garaipenik handiena.

Maiatzaren 30ean, jubenilek Beti Onakekoen kontra lortutako garaipenarekin (2-0) amaitu zen futbol denboraldia. Errejonalek 8., jubenilek mailari eutsi, kadeteek kopan 3. eta infantilak Gipuzkoako ohorezko mailara igo dira.

Mutikoentzako probak

10, 11 eta 12 urteko mutikoek futboleko aritzeko probak egingo zaizkie ekaineko lehen 2 astetako astearte eta ostegunetan, 18:15ean. Interesatuak azaldu!

Zuzendaritza berritua

1990ean Segurako Futbol Taldea sortu zenetik zuzendaritzan aritu diren Aitor Gabilondok eta Juan Antonio Agirrek utzi egingo dute. Ordezkoak aurkitu izan dituzten arte, arriskuan egon da futbolaren jarraipena. Denboraldi berrirako, Joxe Mari Izagirre, Andoni Etxeberria eta Mikel Areizaga sartuko dira. Hauxe gain, 8 urte hauetan zuzendaritza eta entrenatzaile lanetan ari den Iñaki Albisu ere bertan izango da.

Euskadiko txapeldunak

Maite Telleria: maiatzaren 23an, pista librean eta jubenilen mailan Gasteizen izan zen Euskadiko txapelketan urrezko domina lortu zuen pisu jauztiketari. 4 kiloko bola 10,69 metrora jauzti zuen. **Iker Agirrezabal:** kirol eskolarrean infantilen mailan

Eibarren izan zen 150 metroko proban Gipuzkoako txapeldun geratu zen. Maiatzaren 31n, Basaurin, Euskadiko txapeldun 80 metroko proban eta baita 4 x 80 errelebotan ere.

Bola

Maiatzaren 24an Gipuzkoako txapeldunorde geratu zen Antonio Agirre Añorgako bola saioa irabazi ondoren. Mutiloako bolatokiaren inaugurazioan, maiatzaren 23an, 2. egin zuen. Maiatzaren 21ean, Lehendakari Kopan 3. gelditu zen Martxelino Agirre, Aian.

Txirrindulari proba

Segurako Txirrindulari Elkartek antolatuta, ekaina-

ren 14an, jubenil mailako San Joan proba korrituko da. Goizeko 10etan plazatik irtenda 96 Km egin ondoren, 12:25 alderako izango dira helmugan. 120ren bat txirrindulari espero dira, horien artean Alex Rekondo eta Jon Garziandia herritarrek.

Trinidad kofradia

Trinidad egunez, ekainaren 7ko eta bezperako mezen ondoren, Joakina Alustiza, Axun Gereñu eta Arantxa Aburuza, ospitalpean jarriko duten mahaian egongo dira kofradekideei urteroko kibraketa egin edota kide berriak egiteko.

Labur-labur

● Kanpandorreko erlojuaren 3 pisuak igotzeko motorra ideatu du Urtsuarango Joseba Bereziartuak.

● **Kirol eskolarra: Atletismoa:** Udaberri txapelketan, mutil benjaminetan zilarrezko domina lortu zuen Eneko Montesek altuera jauzian eta Borja Gereñuk ere bai 150 metroko proban. **Mendi irteera:** ekainaren 7an izango

da denboraldiko azkena Idiazabalen prestatu den zirkuitoan.

● Ekainaren 7an, eguerdi aurretik, urteroko legez, Santispiritutik erromes etorriko diren **idiazabaldarre harrera** egingo diete segurarrek Malkorre parean.

● **Igerilekuko tabernan edota sokorrista** lanetan aritzeko, ekainaren 8a baino lehen eman behar dira ize-nak udaletxean.

● **San Joanetarako entsaioak:** iaz bezala, inoiz txistua jotako herritarren kalejira egingo da ekainaren 20an. Hurrengo entsaioa ekainaren 13an, 19:00etan frontoian. Ekainaren 23an izango den umeen tanborradarako entsaioak, astelehen, astearte eta ostiraletan, 17:30ean frontoian.

● **Konfirmazioa:** ekainaren 14an, Korpus eguneko meza berean, aurten 17 urte izango dituzten 19 gaztek egingo dute sendotza, 3 urteko presaketaren ondoren.

● **Txangoak:** Laiotz Herri Eskolako 6tik 12 urte artekoak, Etxarri-Larraula dira joatekoak ekainaren 17, 18 eta 19rako. Ingurugiroari buruzko jardunaldiak izango dituzte. Haur Hezkuntzakoak, eguraldi ona den batean, Oiangura joango dira. Azken 2 asteak goizez eginda, ekainaren 19an amaituko dute ikasturtea ikasleek.

● **Aldaize lan taldea:** ekainaren 18an aurkezpen ofiziala egiteko asmoa dute herrian. Bertan, duela gutxi banatu zituzten inkesten emaitzen berri ere emango dute.

● **Valladolidtarrek,** Txutxi, Maria eta konpañia gonbidatuta zaudete Segurako festetara. Azaldu!



Korpus eguna

Prozesioa eta meza: konfirmazioak egun berean direla eta, mezaren aurretik egingo da aurtengoan prozesioa ekainaren 14an. 11:15ean Korpus eguneko zortzikoa joaz aterako diren txistularien atzetik, estandarteak, aingeruak eta palioa joango dira kaleetan zehar. Ondoren, 12:00etan, meza izango da. **Ardo partiketa eta herri afaria:** arratsaldeko 7etan, buruhandi erraldoi eta txistulariak. Iluntzean, ardo partiketa plazan eta ondoren herri afaria. Afalondorenean herriko trikitilariak. Argazkian 1969ko prozesioa 'txapeloker' eta guzti.

ATAUN

Bertsolari gazteak punta-puntan



*Aitzol Munudate, Haitz Aierbe,
Iban Urdangarin eta Oier
Zurutuza bertsolari gazteak.*

Maiatzaren 29an, ostiralean, izan zen Orion Gipuzkoako Eskolarteko 18. Bertsolari Txapelketaren finala eta bertan, 14 urte bitarteko gaztetxoaren artean, Goierri

aritu zen lehian Antiguoa, Zarautz eta Oiartzunekin batera. Ondo aritu ere, alajaina! Azkenean hemengoak izan baikenituen garaile, goierritarrak, alegia; eta

goierritarren artean, berriz, lau ataundar hauek: Iban Urdangarin, Haitz Aierbe, Oier Zurutuza eta Aitzol Munduate (Irati Goikoetxea beasaindarrak osatzen zuelarik boskotea). Hori gutxi balitz, Aitzol aukeratu zuten txikiaren artean onena. Horrenbestez, ekainaren 30ean egingo den Euskadiko Txapelketan (banakako saio eran) bera izango da Gipuzkoako bi ordezkarietako bat. Gainera, bertso paperetan, 3. eta 4. mailakoen artean, Ioritz Zurutuzak aipamena jaso zuen 'txirrindu bat oparitu dizute' gaia jarrita idatzitako bertsoengatik. Zorionak, beraz, denei!

Kirol emaitzak

Areto futboleko Ataun Urbietaren taldeko txapeldun atera da Beti Gazteri 5-4 irabazi ondoren. Horrenbestez, kategoriaz igotzea lortu du aurtengoan. Zorionak!

Gipuzkoako txapelketan ere emaitza onak izan dituzte ataundar gazteak: alebin neskak tenisean, finalerdietan sartu dira; pelotan, bigarrenak izan ditugu eta atletismoan, berriz, seigarrenak. Aupa neskak!

Udaberriko txapelketan: futbiton, alebin neskak lehenengoak; eta benjamin mutil zein neskak bigarrenak. Saskibaloian, benjamin neskak bigarrenak eta mutilak lehenengoak. Atletismoan: pisu jaurtiketan, Maialen Sukia lehenengoa eta Garazi Aierbe nahiz Xabi Altuna bigarrenak; luzera jauzian, Xabi Altuna lehenengoa, Garazi Aierbe eta Harri Herguedas bigarrenak eta Maialen Sukia hirugarrena. Xabi Altuna bera altueran hirugarrena izan da eta 60 mtan lehenengoa; azkenik, 600 mtan, Monika Arratibelek bigarren postua lortu du. Zorionak beste behin!

Labur-labur

- 'Egunkaria'k argitaratzen duen 'Ikasmendi' gehigarriak Euskal Herriko eskola ezberdinetako aldizkariak aztertu eta horien artean, Eguzki Berri ataundarrak 2. postua merezi duela erabaki du. Zorionak!
- Odol-emateentzat deia: ekainaren 16an odol-ematea izango da Oargi Troskaetan, arratsaldeko 7etatik 9ak bitartean. Ea animatzen garen!

Otso festa 98

Otso Festa 98ri, ikasturte amaierako kultura eta kirol ekitaldiei, hasera emango diegu astebukaera honetan. Hara hemen programa:

Ekainak 5, ostirala: iluntzeko 8:30etan, bertso eta kantua afaria herriko bertsolariekin Bittor Jate-txean.

Ekainak 6, larunbata: iluntzeko 8:00etan, organo kontzertua elizan, Esteban Elizondoren ikasleen eskutik.

Ekainak 7, igandea: XXXIV. Ataun San Martin proba, Agauntza K.E.aren antolatuta. Txirrindularitza proba hau Euskaldun torneoaren barruan dago eta bertan elite mailakoak eta 23 urte azpikoak hartuko dute parte. Goizeko 9etan abiatuko dira San Martingo plazatik eta 147,4 Km egin ondoren, helmuga ere toki

berean izango dute.

Ekainak 8, astelehena: arratsaldeko 4etan, hitzaldia 'Osasuna eta elikadura' gaiaren inguruan, Arantxa Lorenzoren eskutik (Artadi elkartearen); 5etan, berriz, soinketa bateratua.

Ekainak 10, asteazkena: arratsaldeko 3etan, Zelai-ko II. Badminton finala eta iluntzeko 8:30etan, diapositiba proiektzioa Oargi Troskaetan, 'Gipuzkoako Jaiak: udaberria' izeneko.

Ekainak 11, osteguna: arratsaldeko 6:00etan, Auzoeta-ko II. Badminton finala eta iluntzeko 8:00etan, 'K-2 Baltistan' diaporama proiektzioa Oargi Troskaetan Joxe Ramon Agirreren eskutik.

Ekainak 12, ostirala: 17:30etan, Auzoeta-ko II. Frontenis finala (emakumeak) eta 22:00etan, II. Gau ibilaldia Errenagara (Igaratza).

Ekainak 13, larunbata: arratsaldeko 3etatik aurrera kirol ekitaldi ezberdinak izango dira, denak finalak: frontenisa, pala, esku pelota eta Ataungo V. Futbito txapelketa. Eta, ikasturte edo kurtsoari bukaera egokia emateko, iluntzeko 8etatik hasita, Otso Festa 98 afaria egingo da Bittor jatetxean (sari ematea ere izango delarik). Gainera, ekainaren 8tik 14 arte margolaritza eta egur tintaketa ikastaroetan egingo dako lanen erakusketa egongo da udaletxean.

PATXI ZUBIZARRETA IDAZLE ORDIZIARRA:

Haur literaturatik helduenera itzuli nahian

Helduen literaturatik haur

literaturara. Eta haur literaturatik berriz ere helduen literaturara pasatzeko asmotan dabil Patxi Zubizarreta ordiziarra. Haur literaturan aurkitutako sinpletasuna eta umore puntua helduen literaturan islatu nahi ditu. 34 urte ditu eta berarekin izan gara bere literatur ibilbidearen nondik norakoak jakin nahian.

Helduen literaturan eman zituen lehen urratsak Patxi Zubizarretak. 'Jesus, Marie eta Jose' eta 'Grabielle' nobelak idatzi zituen. Ez zen gustora gelditu, ordea, bere bi lanekin. 1990ean idatzi zuen lehenengo liburua. "Liburu hori txarra izan zen, zenbat nekien erakutsi nahi izan nuelako. Nolabait euskara berrikasia nuen, Euskal Filologia ikasketak bukatu nituen... zenbat idazle irakurriak nituen erakutsi nahi izan nuen, hizkera oso zaila erabili nuen... Orduan uste nuen zenbat eta hizkera



zailagoa, orduan eta hobea zela liburua", dio Patxik. 'Grabielle' rekin ere "antzeko pekatua" egin omen zuen.

Gauzak honela, haur literatura salto egitea erabaki zuen, nolabaiteko sinpletasuna ikasteko. 'Matias Plofen erabakiak' lana idatzi eta Tolosako Labaien saria jaso zuen. 'Gutun harrigarria', 'Emakume sugearen misterioa', '48ko udan', 'Eztia eta ozpina', 'Gizon izandako mutila'... guztira 10 bat liburua idatziak ditu. '48ko udan' lanarekin Baporea saria jaso zuen, milioi batekoa. "Gauza sinpleagoak egiten hasi nintzen, baina aurrekoak bezain sako-

nak. Nahiz eta haur literatura izan, gai sakonak azaltzen dira. Amaordearen pamera, mutiko lodi baten istorioa...".

Berehala konturatu zen Patxi esker oneko esparrua zela haurrena. Sariez gain, ikastetxeetara joan eta hurrek harrera beroa egiten omen die idazleei. "Badirudi kirolariei bakarrik egiten diela horrelako ongi-etorria, baina ez da horrela".

'Eztia eta ozpina'

'Eztia eta ozpina' liburua da Patxi Zubizarretan libururik salduena. 7. edizioa kalean da eta "horrek esan nahi du 9.000 liburutik gora saldu ditudala". Liburu hau gazteentzako bada ere, helduenganaino iritsi da. Marokoar baten istorioak kontatzen ditu, Gasteizen eta Parisen kokatuak.

Orain Elkar argitaletxeak antolatutako bekari esker, 'Eztia eta ozpina' liburua-ren kontrapuntua ari da prestatzen. Mutiko euskaldun baten gora-beherak Marokoko bereberean artean kontatuko ditu; 'Atlas sentimentala' jarriko dio ziurrenik izenburua.

Gai arabiarrek jorratu izan ditu Patxik bere lan askotan. Sinpletasunarekin batera, horixe baita bere liburuetako ezaugarrietariko bat. 'Atlas sentimentala' liburuarekin, gai arabiarrekin bukatu nahi du, dena den.

Haur literaturari esker poz handiak jaso ditu Patxik. Hainbat liburu euskaraz, gaztelaraz, gailegoz eta katalanez argitaratzeko aukera izan du. "Kanpoko argitaletxeek gozoa eskaintzen digute; euskaraz eta gaztelaraz, eta agian gailegoz eta katalanez argitaratzeko aukera. Oso tentagarria izaten da. Ni saiatzen ari naiz oreka lortzen eta normalean hemengo argitaletxeetan argitaratzen dut eta oso noizean behin, kanpoan".

Euskal literaturaren ajeak

Patxi Ezkiagak 136. alean esan zigunez, irakurle gutxi ditu euskal literaturak. "Hori egia da, baina hala ere ez dut uste momentu honetan arazoa hori denik. Gazteentzat adibidez, oso gauza gutxi dago. Gazteek ez daukate zer irakurrik. Xabier Mendigurenek tarte-ka idazten du, baina oso gutxi idazten da gazteentzat. Ez dakit oso ondo zergatik den". Beste hutsune bat ere ikusten du Patxik. "Oraindik ere ez dut ira-

Argitarapen honen edizioa laguntzeko.

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación

kurtzen euskaraz irakurri nahiko nukeena. Batzuek diote Agatha Christie falta dela euskaraz. Hau da, literatura oso urruna egiten dugu. Literatura hurbilagoa behar dugu, irakurri eta botatzeko ia-ia, liburu arruntagoak. Esaten da oso literatura homologarria egiten ari garela, esportagarria. Lertxundiren nobelak hasi dira itzultzen, Atxagarenak aspalditik ari dira, Mariasun Landarenak haur literatura, nire bi liburu txiki ere aterako dira...

Honetaz guztiaz gain, originalak falta omen dira euskal literaturan. "Argitaletxetakoek diote ez zaizkielela originalak iristen. Eta askotan idazleok presioa sentitzen dugu, liburuak eskatzen dizkigutelako. Baina idazle bakoitzak bere erritmoa dauka. Inoiz baino gehiago argitaratzen da, baina asko itzulpenak izaten dira. Eta nire ustez, obra txar asko kaleratzen dira. Argitaletxe asko dauka, haur literaturan, 15 bat edo. Eta ez dago denentzako", argitu du ordiziarrek.

Irakurle errazagoak ez

Patxik ez du uste haurrak helduak baino irakurle errazagoak direnik. "Helduek malizia handiago dugu. Sentimenduak ez ditugu adierazten. Haurrek, ordea, berehala esaten dute gustatu zaien edo ez. Ez dut uste irakurle



zailagoak direnik, baina errazagoak ere ez". Haur literaturan idazten dutenek, badute beste abantaila bat Patxiren esanetan. "Gure liburuak denontzat izaten dira. Aldiz, helduentzat idazten dugunean, liburu horiek ez dira umeentzat. Umeentzat idatzitakoak, gurasoentzat ere badira".

Atzerrian zenbaitentzat negozioa omen da haur literatura. "Kanpoan badaude idazle batzuk, haur literatura egiten dutenak eta hilean ipuin bat idazten dutenak. Negozio bat da, erabatekoa. Baina Euskal Herrian ez dago horrelakorik. Saiatzen

gara hortik bizitzen, baina ez hortik negozio bat egiten", argitu digu.

Literaturatik bizi da Patxi Zubizarreta. "Liburuetatik bakarrik ezin gara bizi. Idazle Elkartetik ikastetxetara joaten gara, eta hortik ere zerbait irabazten dugu. Lehiaketak ere hor daude. Bizi daiteke, baldin eta haur literatura idazten baduzu, bestela oso zaila da".

Helduengana itzuli

Haur literaturan ikasitako helduen literaturan praktikan jarri nahi du orain. "Zerbait freskoa egin nahi dut. Helduentzako literatura arina ere egin daiteke, txispa handikoa eta umoretsua. Haurrentzat adierazi duan mundu hori helduentzat adierazteko gogoia daukat. Zerbait bizia, txispaduna, bizia...". Zinetik ari omen da

pista asko jasotzen.

Enkarguzko lanak ez zazkio atsegin Patxiri. "Idatzi ahal bada, behartuta ez da idatzi behar". Nafarroa Oinezeko antolatzaileek eskatuta, ordea, egun hauetan kaleratuko den lana egin du. Zangoza bertako bi ipuin zahar bildu eta ipuin berriak egin ditu. Ipuin zaharrak ipuin berrietan txertatu ditu. "Nire espezialitatea da hori eta ikusten dut errepikatzen ari naizela eta hobe dudala haur literatura utzi eta poliki-poliki helduen literaturan sartu berriro".

Gasteiz

Gasteizen bizi da Patxi. Goierriko hainbat kontu '48ko udan' eta 'Emakume sugaeren misterioa' liburuetan azaldu izan ditu. "Euskal Herria beti baserriarekin eta Goierriarekin identifikatzen da. Euskal Herrian adibidez, ez da Arabako mahastirik, zikoinik, gariarik... azaltzen. Beste era bateko historiak falta dira. Baita emakumezko idazleak ere".

Gasteizek Euskal Herriari beste modu batera begiratzeko balio izan dio. "UA sortu zen, denok beldurtu ginen, baina UA hiltzen ari da. Gero eta euskara gehiago entzuten ari da. Berriro ere lortzen ari da beste giro bat sortzea. Geu Gasteiz alizkaria hor dago. Oso gauza politak ari dira sortzen".

"Literatura oso urruna egiten dugu. Literatura hurbilagoa behar dugu, irakurri eta botatzeko ia-ia, liburu arruntagoak"

1998ko UDA

LAZKAOKO



MAIZPIDE
euskaltegia
barnetegia

XXIV. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

6-12 URRATSAK bakarrik, ALFABETATZEN; HIZKUNTZ ESKAKIZUNAK; ALFABETATZE TEKNIKOA, SAKONTZEN.

6 IKASTORDU EGUNEAN, BARNETEGIAN NAHIZ KLASEAK BAKARRIK

- ✓ Uztaila: 6/24
- ✓ Abuztua: 3-28
- ✓ Iraila: VIII-31/IX-25

EMAN IZENA

HABEren dirulaguntzaz.

INFORMAZIO GEHIAGO Tel.: 943 88 92 31 - 943 88 92 32



79. belaunaldiko ataundarrak

Ataungo On Joxemiel Barandiaran eskolako San Martingo ikasleak ditugu hauek, 4-5 urterekin.

Zutik ezkerretik eskubira: Iñaki Maiza, Pello Urdangarin, Mikel Etxeberria, Auritz Mendizabal, Ane Auzmendi, Begoña Munduate (irakaslea), Julian Gurrutxaga, Aitziber Urdangarin, Iñaki Valero, Aitor Tato, Iban Galparsoro, Aitor Etxeberria eta Naiara Etxeberria.

Eserita: Igone Aierdi, Aiora Arrondo, Iñaki Iparragirre, Izaro Elias, Migel Angel Nuñez, Aroa Lopez eta Lorea Agirre.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901
Faxa: 943 888901
LAZKAO



FAMILIAK EUropa GUZTIAN ETA EEBetan
INGALATERRAKO HOTEL ETA LANDETXEETAN
LANPOSTUAK KONTRATUAREKIN

Arrasate, 33 behe C DONOSTIA
Tel-Faxa: 943 43 15 48

VOLVO
TOYOTA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak

Barandiaran
ZERAMIKAK

☎ 943 88 79 72
Senpere, 7
BEASAIN



Luma Gomi

Zabalegi aldea
Zerain (Gipuzkoa)

Tel. (943) 80 01 61
Faxa: (943) 80 15 56

Baserriko Oilaskoa

KALITATEKO
EUSKO
LABELAREKIN



Belardian
aske hazitakoa



Antzizar
kiroldegia:

UDAKO AUKERARIK HOBERENA

LA MEJOR ELECCION DEL VERANO



BEASAINGO UDALA



ANTZIZAR
KIROLDEGIA



KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA
instituto municipal del deporte